

COVID 19 Pandemiaren inguruko gogoeta feministak

*Patricia Amigot Leache, Inmaculada Arostegui Madariaga, Arantza Arrien Goitiandia,
Mari Luz Esteban Galarza, Txiki Estivariz Martínez de Antoñana,
Ana Fernández Goienaga, Lucía Gallego Andrés,
Nahia Idoiaga Mondragon, Josebe Iturrioz López, Mertxe Larrañaga Sarriegi,
Marta Macho Stadler, Saioa Osés Monzón, Isabel Otxoa Crespo,
Oihana Plazaola Ugarte, Begoña Sánchez Surribas, Arantza Urkaregi Etxepare*



COVID 19. Pandemiaren inguruko
gogoeta feministak
Martxoa 2021



- Araba** | Eulogio Serdán 5 • 01012 **Gasteiz**
☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02
araba@steilas.es
UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa • 01006 **Gasteiz**
☎ 945 01 33 97 (3397)
steilas-araba@ehu.es
- Bizkaia** | Jose Maria Eskuzo 1, 1 esk. • 48013 **Bilbo**
☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60
bizkaia@steilas.es
UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegi eraikina, 2 - 1 • 48940 **Leioa**
☎ 946 01 24 34 – 24 35
steilas-bizkaia@ehu.es
- Gipuzkoa** | Basotxiki 30-34 atz. • 20015 **Donostia**
☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27
gipuzkoa@steilas.es
UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina • Elhuyar Plaza 1
20018 **Donostia**
☎ 943 01 84 36 (8281) 📠 943 01 81 40
steilas-gipuzkoa@ehu.es
- Nafarroa** | Joaquin Beunza, 4-6 behea • 31014 **Iruñea**
☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90
nafarroa@steilas.es

www.steilas.eu

Diseinu eta maketazioa: Marra, S. L.
Inprimaketa: Printheaus, S. L.
Lege Gordailua: Bi 00409-2021
ISBN: 978-84-120567-8-5

Aurkibidea

Sarrera	5
<i>Idazkaritza feminista</i>	
Pandemia eta emakumeen aurkako indarkeria	9
<i>Patricia Amigot Leache</i>	
Pandemiaren inguruko gogoeta feministak. Urte bete baino haratago	15
<i>Inmaculada Arostegui Madariaga</i>	
Letxugak erein, eta nekez haziko dira orburuak; aniztasuna eta zaintza erein, eta nekez hasiko dira pandemiak	21
<i>Arantza Arrien Goitiandia</i>	
Inoiz baino gehiago, gorputzari erreparatzea	29
<i>Mari Luz Esteban Galarza</i>	
Gure HH eta LHko ikastetxetik Pandemiaren irakurketa	35
<i>Txiki Estivariz Martínez de Antoñana, Oihana Plazaola Ugarte</i>	
Garbiketa sektorean, funtsezkoak izatea aitzakia da greba eskubideari boikota egitekoa	41
<i>Ana Fernández Goienaga (goitizena)</i>	
Feminismoa eta jasangarritasuna osasunean: COVID-19 pandemiari arrakastaz aurre egiteko bide-orria	47
<i>Lucía Gallego Andrés</i>	
Pandemiak genero arrakala eta zaintza lan ikusezina areagotu zituenekoa	53
<i>Nahia Idoiaga Mondragon</i>	

Chernobyl, munduaren amaiera eta eskola	57
<i>Josebe Iturrioz López</i>	
COVID krisiaz hausnartzen Ekonomia Feministatik	63
<i>Mertxe Larrañaga Sarriegi</i>	
Pandemia garaietan ikusezin	69
<i>Marta Macho Stadler</i>	
Arrakala digitala: arrakala sozialaren isla	75
<i>Saioa Osés Monzón</i>	
Zaintza dagokion lekuan jartzea	81
<i>Isabel Otxoa Crespo</i>	
Lau urteko 30 neska-mutil ditugu, eta jantokian bi begirale gara; ez da ezer gertatzen zortea dugulako	87
<i>Begoña Sánchez Surribas</i>	
Adinekoen egoitzak: COVID-19ak bultzaturiko hausnarketa	93
<i>Arantza Urkaregi Etxepare</i>	

Sarrera

Koronabirusak gure bizitzak irauli dituen honetan, pandemiaren ondorio sozial eta politikoak aztertzeko beharra antzeman dugu **STEILAS**eko Idazkaritza Feministatik, eta, horretarako, euskal feminismoaren inguruan biltzen diren hainbat ahots bildu ditugu, beren hausnarketak azalertzeko.

Urtebete baino gehiago da Munduko Osasun Erakundeak (OME) mundu mailako pandemia-egoera ezarri zuela. Orduetik, zenbait fase bizi izan ditugu: sinetsi ezinean ibili gara, izua sentitu dugu, eta dagoeneko gure egunerokotasunean erabat txertatuta dagoen «normaltasun berrira» egokitu behar izan dugu. Hori bai, estatuek sendotutako kontrol-dispositiboek etengabe zelatatuta dagoen «normaltasun berria» da ezarri zaiguna.

Feministok hasiera-hasieratik kritikatu izan dugu «normaltasun berri» hau, lehengo normaltasun patriarkalaren oso antzekoa delakoan; kapitalismoari lotuta dago, lanaren banaketa sexualari eusten dio, genero-indarkeriak indarrean dirau, etxeko lanek eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen (haurrak, adinekoak...) zaintzak ikusezin eta prekario izaten jarraitzen dute, esfera publikoan emakumeen presentzia txikia da, eta LGTBI kolektiboaren diskriminazio ez da desagertu.

Hori horrela, «normaltasun berri» kontzeptua zalantzan jartzeaz gain, nabarmendu nahi izan dugu osasun-krisi honek aurrekaririk gabeko krisi sozial eta ekonomikoak ekarri duela berekin eta, berriro ere, emakumeak izaten ari garela kaltetuenak. 2018. urteko greba feministaz geroztik aldarrikatu izan dugu etxeko lanek eta zaintzek aitortza behar dutela, eta horretan diharduten pertsonen –emakumeak nagusiki– lan-baldintza duinak izan behar dituztela.

Egiten ditugun manifestazio, ekintza eta adierazpen guztietan eskatzen dugu osasun eta hezkuntza arloetako zerbitzu publikoak sendo daitezela, eta zainketen sistema publiko bat diseina dadila premiaz. Distantzia ezarri dugu pertsonen artean, baina kaleetan jarraitzen dugu, gure sistema produktibo eta erreproduktiboaren egiazko aldaketa baten alde borrokan.

Hala eta guztiz ere, hainbat galdera datozkigu burura: Aldatzen ari al dira politika sozio-laboralak, funtsezkoak diren enplegu horietan baldintza hobekak izan ditzaten? Islatzen al da aurrekontuetan zuzkidura handiagorik, pertsonen bizitzari eta sistema produktiboari eusten dioten sektoreak sendotzeko? Europako funtsen zein zati bideratuko da haur eskoletako, ikastetxeetako, institutuetako, unibertsitateetako, jantokietako, garbiketa sektoreko, adinekoen egoitzetako, anbulatorioetako, ospitaleetako langile-taldeak handitzera? Noizko benetako zainketa-sistema publiko bat, mundu osoan pobretutako pertsonak beren patura abandonatzen eta heriotzara kondenatzen ez dituen? Presentzia eta garrantzia mediatikoa izaten ari al dira emakume zientzialari adituak? Indarkeria matxisten kontrako agenda feminista behar beste azpimarratzen ari al da pandemiaren kudeaketaren garrantzia?

Bestalde, klima-aldaketaren kontra borrokatzeko momentua orain dela badakigu, izan ere, planetaren jasangarritasuna eta bizigarritasuna dira jokoan daudenak. Deforestazioaren eraginez patogenoak basoko faunatik pertsonengana igaro direla ikusita, zeren zain gaude nekazaritzako elikagaiei eta hirigintzari dagozkion politikak eraldatzeko? Aztarna ekologikoa txikitu behar dugu, bai; baina, horretarako, egun dugun eredu ekonomikoa zalantzan jarri beharko dugu ezinbestean, lurraren ustiapenean eta emakumeen gorputzean oinarrituta baitago munduaren luze-zabalean. Era berean, geure buruari galdetu behar diogu turismoaren

industria jasangarria ote den, edo zentzurik ote duen haurrak auzotik urrun dauden ikastetxe pribatu-kontzertatuetara eramatea, horretarako eskola-autobusek egunero exodoa egin behar badute.

Jarraian datozen lerroetan, gai hauen eta beste askoren inguruko begirada ezberdinak aurkituko ditugu. Gai horiek guztiak aztertzea, zalantzarik gabe, lagungarria izango zaigu pandemia honek emakumeengan eta baliabide eskasak dituzten pertsonengan duen intzidentzia desberdinduaren aurrean proposamen politikoak eta erantzun zehatzak emateko. Ahots anitzak bildu dira, eta horiek guztiak agerian uzten dute euskal feminismoak barne biltzen dituen gai eta teorien aniztasuna.

Eskerrak eman nahi dizkiegu egile guztiei, egin dituzten analisi garrantzitsu eta beharrezko horiek **STEILAS**eko Idazkaritza Feministarekin partekatzeagatik.



Pandemia eta
emakumeen
aurkako
indarkeria

Pandemia eta emakumeen aurkako indarkeria

Patricia Amigot Leache.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia
eta Gizarte Langintza Departamentuko irakaslea.

Ikuspegi feministan oinarrituta emakumeen aurkako indarkeria aztertzeo, ezinbestekoa da indarkeria hori logika patriarkal eta kapitalista batean kokatzea, hortxe artikulatzen baitira generoen arteko botere-harremanak –besteak beste– eta haren adierazpen bortitza. Baina pentsatu behar dugu, halaber, giza eskubideen urraketari eta oinarritzko beharizanak asetzeko aukera murrizteari dagokionez, egitura patriarkal hau bortitza dela, berez. Horregatik, pandemiaren egoera konplexu honek emakumeen aurkako indarkeria *zuzenari* nola eragin dion zehaztu baino lehen, garrantzitsua da haren egitura-dimentsioaren eta dimentsio sinbolikoaren inguruan hausnartzea.

Argi dago emakumeen eskubideen eta bizi-baldintza materialen arloan egiten den edozein atzerapausok areagotu eta biziagotu egiten dituela indarkeriak. Beste adiskide batzuek beren testuetan azalduko dutenez, pandemiak eta, batez ere, haren aurrean egiten ari den kudeaketak eta hartzen ari diren erabaki politikoek areagotu egiten dituzte, termino globaletan, genero-ezberdintasunak eta emakumeen zaurgarritasuna. Uste dugu gizakia berez dela zaurgarria, elkar-menpekoa eta ahula: gure baldintza ontologikoa da. Baina, sistemaren funtzionamenduaren ondorioz, prekarizatzeko eta desbabeste-prozesuak ere ematen dira; zaurgarritasunaren dimentsio politikoak, adibidez, lotura zuzena du egitura patriarkalarekin harremana duen egungo kapital-metaketa logikarekin. Zenbat eta errukigabeagoa izan, orduan eta sufrimendu gehiago sortzen du; eta, Rita Segatok aztertzen duenez (2014), orduan eta gehiago bilakatzen dira emakumeak indarkeriaren objektu.

Hainbat organismok ohartarazi dute pandemia-egoera global honek emakumeei eragingo dien atzeraldiaz. Praktika neoliberalak baliabideen eta komunitateen espoliazioa areagotu duten eta desberdintasun sozialak gordindu dituzten honetan, pandemiak eta haren kudeaketak areagotu egingo ditu aipatu injustizia guztiak. NBEk adierazi zuenez (2020), genero-arrakala handitzen ari da; izan ere, organismo haren arabera, 47 milioi emakume hasi dira pobrezia-egoerak pairatzen, neskatoak direlarik eragin handiena jasango dutenak. Benetan, emakumeak gero eta gehiago eta azkarrago pobretzen dira horrelako egoeretan. Gainera, beste azterlan batzuetan adierazi denez, joera horren baitan, baliabideen galerak, itxialdiek eta nahitaezko bizikidetzak –eta, ondorioz, ihes egiteko aukera txikiagoak– nabarmen areagotzen dute indarkeria zuzena. Hain zuzen ere, ONU Emakumeak erakundeak kalkulatu du emakumeen aurkako indarkeria 31 milioi kasutan areagotu dela. Eta oso herrialde gutxik hartu dituzte egoeraren larriagotze hori leuntzeko neurriak.

Esan bezala, emakumeek pairatu dute egoera honen inpaktua; emakumeek galdu dute lana gehiago eta azkarrago, emakumeek jarduten dutelako enplegu informalak, prekarioagoak, kontratu gabeak barne hartzen dituzten sektoreetan, hala nola etxeko lanetan –zeinetan, LANEren arabera, enpleguen % 72 galdu baita–. Horrekin lotuta, ezin uka dezakegu pobrezia eta menpekotasun ekonomikoak indarkeria-egoerekiko sentikorrago egiten gaituztela, zalantzarik gabe. Gainera, itxialdiak eta murrizketek, generoari lotutako logiketan oinarrituta, areagotu egin dituzte lan erreproduktiboa eta zaintza-lanak, baita, ondorioz, horiek dakarten tentsio eta gainkarga ere. Bizitzako baldintza materialek, bestalde, areagotu egin dute neurri murriztaileen eragina: argi dago, ez da berdina itxialdia etxe handi batean igarotzea –telelanerako edo intimitaterako gune indibidualak berezita–, 50 metro koadroko pisu batean edo gela batean igarotzea, edota etxebizitzarik gabe igarotzea. Zentzu horretan, aipatu behar da azken egoera hori jasan behar izan dutela etxeko lanetan diharduten emakume askok, zeintzuentzat itxialdiak kalean edo menpeko egoera batean gatibu geratzea eragin baitu sarri, Norma Vázquezek adierazi duenez (Vázquez, 2020). Indarkeria egoera argia da hori.

Indarkeria sinbolikoari lotutako terminoetan pentsatuz gero, hau da, imajinario sozialari eta ezagutza androzentriko eta sexistaren ekoizpenari erreparatuz gero, pandemiak egoera arrotza ekarri digu. Alde batetik, eta batez ere hasieran, diskurtso publikoan zaintza-funtzioen zentraltasuna nabarmendu zen, eta horrek bizitza soziala eta elkar-zaintza eusten duten lanbide eta kolektiboen balioa handitzea eragin zuen, batez ere osasun, hezkuntza, menpekotasunaren arreta arloetan. Beharbada, ondorio iragankorra izango da, ez dakigu; baina, hala eta guztiz ere, pandemia termino

belikoetan metaforizatzeak (gure kulturaren) maskulinitasunean oinarrituta dagoen heroitasunari lotutako sare semantikoa aktibatu zuen. Horri guztiari segurtasun indar eta kidegoen presentzia mediatikoa gaineratzen badiogu, zeina nabarmendu egiten baita gobernuaren prentsaurrekoetan, ohartuko gara protagonismoa maskulinizatuz joan dela pandemiari lotutako esperientziaren eta erantzun sozialaren irudikapenean. Gainera, gobernuak ezarritako neurri asko urrunduz joan dira lehendabiziko proposamenetatik, hau da, osasun, hezkuntza eta zaintzei lotutako gizarte zerbitzuen sistemak ezinbestean sendotu behar zirela planteatzen zuten haietatik.

Emakumeek jasan duten indarkeria zuzenari dagokionez, pandemiak areagotu egin du arriskua, eta zaildu eta biziagotu egin du emakume askok pairatzen duten indarkeria. *Gera zaitetz etxean* mezuak bizi-egoerak okertzea eragin zuen emakume askorengan eta haien seme-alabengan, baita, bereziki, sexu-indarkeria jasaten duten neskatuegan ere.

Etxeko genero-indarkeria ez da gertakari puntuala, prozesu luze eta konplexua da, eguneroko errealitatea markatzen duena, eta eguneroko errealitate hori nabarmen hondatzen da itxialdi egoeretan. Gorakada honen azken kausa, hortaz, ez da itxialdia izan, ezta estresa edo menpekotasunak ere. Eraso matxistak gertatzearen kausa nagusia da, hain zuzen ere, erasotzailea indarkeriaren bidez bere nagusitasuna berresteko legitimatuta sentitzen dela, oro har, nagusitasun hori naturalizatuta dagoelako eta, ondorioz, eskubide gisa bizi dutelako. Testuinguru horretan, argi dago bizi izandako frustrazioak, emakumeen baliabide murrizketak, laguntzen galerak eta abarrek indarkeria areagotu dezaketela; horrek etengabeko alerta-egoeran uzten ditu emakumeak, horrelako gertakariak kontrolatzen, leuntzen eta jasaten lagunduko dieten estrategiak garatzeko ahaleginean.

Lehenengoz eta behin, itxialdian tratu txarrak ematen dituenarekin etengabe bizi behar izateak ugaritu egiten du eraso eta erasotzaileen inpunitate sententzioa –ikusezintasuna tarteko–, baita etengabe adi egon behar izateak eragiten duen tentsioa eta larritasuna ere. Datuek agerian utzi dute itxialdiak iraun bitartean salaketa kopuruak ez zuela gora egin –leku batzuetan behera ere egin zuen–, baina era esponenzialean areagotu ziren kontsultak eta informazio-bilaketak, adibidez, 016 telefono zenbakian. Hala eta guztiz ere, Nafarroan 2019ko eta 2020ko hiru hilabete horietan egindako salaketei dagozkien datuak alderatzen baditugu, ohartuko gara, zailtasunak zailtasun, areagotu egin zirela indarkeria fisiko eta psikologikoaren salaketak bizikidetzari lotutako adin-tarteetan (30 eta 64 urte bitartean), eta gutxitu egin zirela beste adin-tarte batzuetan. Duela gutxi argitaratu den azterlan baten

arabera (Ibarrola, 2021), adierazle kuantitatibo horretaz gain, badira beste adierazle kualitatibo batzuk, zenbait emakumeren esperientziari dagozkionak. Horietan, indarkeriaren areagotze argia azpimarratu dute, batez ere arlo psikologikoan: kontrol handiagoa, mespretxu gehiago, debeku gehiago, espazio propioaren inbasio zorrotzagoa.

Bigarrenez, emakume eta umeez bizi dituzten indarkeria-egoerak okertzearen kausa gisa aipatu behar dugu, baita, bakarrik igarotzeko eta atsedean hartzeko uneen galera, baita, horrekin lotuta, laguntza eskatzeko ezintasuna edo tentsioa eta sufrimendua arintzeko balio zuten harremanen (senideak, profesionalak, lagunak) babesa jasotzeko zailtasunak ere. Baliabide instituzionalak, tratamendu psikologikoa edota banaketa-prozesuetarako zein salatzekeko orientazioa jasotzen zuten emakumeen kasuan, bide-laguntza eta jarraipen horrekiko apurketa partziala eragin zuen isolamenduak, nahiz eta beste laguntza-baliabide telematiko batzuk artikulatu ziren.

Aurretik ere harrera-baliabideetan zeuden emakumeei erreparatuz gero, esperientzia konplexua izan da. Nafarroan, baliabide horien erantzun-gaitasuna handitu behar izan zen, espazioari zein arlo profesionalari dagokionean, areagotu egin zelako larrialdi-egoerentarako laguntza-eskaera eta eten egin zirelako egonaldien denboramugak. Saturazioak eta gainkargak agerian utzi ditu eredu instituzionalaren mugak eta eredia errotik birformulatzeko baliabide ekonomikoen beharra. Baliabide horietan, itxialdiak isolamendua gogorra ekarri zien emakumeei (gehienak adingabekoekin). Horien hitzetan (Ibarrola, 2021), beldur handiz jaso zuten gaitzarekiko arriskua; izan ere, haiek gaixotuz gero, beren seme-alabekin zer gertatuko ote zen ez jakiteak kezkatzen zituen gehien. Aitzitik, beste lekuko batzuek adierazi dute benetan aringarria izan zela itxialdi hura indarkeria-espaziotik kanpo bizi ahal izatea.

Azkenik, garrantzitsua da gogoratzea ez salaketek, ez baliabide instituzionalek ez dutela islatzen emakumeen etxeko indarkeria zuzenaren larritasuna, estatu mailako makroinkestetan eskuratutako datuetatik ondorioztatu denez¹. Generoen arteko

1 Egindako kalkuluen arabera, indarkeria kasu guztien % 20 inguru salatzen dira (Berdintasun Ministerioa, 2020). Hori azpimarratzeak ez du esan nahi indarkeria oro salatu beharko litzatekeela uste dugunik. Izan ere, edozein kasutan, egiturazko arazoei aurre egin ahal izateko, behar-beharrezkoa da justizia arloan erantzunak ematea; baina, soluzioa lortzeko, ezinbestekoa da egiturazko eraldaketa sakonak ezartzea, emakumeak ahalduz eta horren inguruko erabaki egokiak hartzea.

botere-harremanak presente daude harreman heterosexualen sarean, indarkeriaren adierazpen ezberdinak agertzen direlarik, eta horiei guztiei aurre egiteko, estrategia, baliabide eta erabaki propioak baliatzen dituzte emakumeek. Baliteke eremu pribatuko egoera askok okerrera egin izatea, agerikoa baita krisi-egoerek, desberdintasunen areagotzeak eta emakumeenganako diskriminazio zuzen zein zeharkakoek larriagotu egiten dituztela indarkeria matxistak; baina larriagotze hori arlo instituzionaletik harago doa, logika patriarkala baitago guztiaren oinarrian. Eta horixe eraldatzen saiatzen gara feminismotik.

Bibliografia

- Ibarrola, Sara (2020). *Konfinamendua lehen pertsonan. Bizipenak eta testigantzak*. Nafarroako emakumeenganako eragina eta ondorioak. Nafarroako Berdintasunerako institutua - Nafarroako Gobernuak.
<http://www.igualdadnavarra.es/imagenes/documentos/-281-f-es.pdf>
- ONU Emakumeak (2020). *From insights to action: Gender equality in the wake of COVID-19*.
<https://news.un.org/en/story/2020/09/1071502>
- Berdintasun Ministerioa (2020), Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestak 2019. Eskuragarri hemen:
<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/Macroencuesta2019/home.htm>
- Segato, Rita (2014). Las nuevas formas de la guerra y el cuerpo de las mujeres. *Sociedade e Estado*, 29(2), 341–371.
<https://doi.org/10.1590/S0102-69922014000200003>
- Vázquez, Norma (2020). *Garbira pasatzeko zirriborroak. Berdintasuna pandemia garaian. Hausnarketak eta proposamenak. 1. saioa: COVID-19ak berdintasunean eta emakumeen aurkako indarkerian duen eragina*. Ikaspenak eta proposamenak. Emakunde.

Pandemiaren
inguruko gogoeta
feministak.
Urte bete baino
haratago

Pandemiaren inguruko gogoeta feministak.

Urte bete baino haratago

Inmaculada Arostegui Madariaga.

Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa arloko irakasle osoa da
Zientzia eta Teknologia Fakultatean, UPV/EHU.

Idazten hasi naizenean jabetu naiz urte bete pasa dela jadanik. Urte bete pasa, SARS-COV-2 birusari eta COVID-19 gaixotasunari buruzko lehen berriak gure belarrietara iritsi zirenetik. Urte bat zehazki une honetan, Txinako, eta batez ere Italiako, egoerak ikusita arduratzen hasi ginetik. Eta idazki hau publikoak irakurtzeko prest agertzen denerako, urte bete 2020ko martxoaren 8tik.

Pasaden urteko martxoaren 8a ez dut ahaztuko. Oinarrizko eskubide horiek defendatzea beste ezer baino inportanteagoa iruditu zitzaigun hainbati. Beste hainbatek ordea, kalera atera beharrean etxean geratzea erabaki genuen, jendetza eta aurrez aurreko kontaktua ekidin nahian, agian horrek arriskutik babesten gintuela pentsatuz. Data horretan Euskadin 47 kasu positibo zeuden konfirmatuta, seguruena hainbat gehiago ziren guztira, eta jadanik lehen heriotza erregistratuta, martxoaren 4an. Ez al ginen egoeraren larritasunaz jabetzen? Oro har erantzuna ezezkoa da, eta ez da harriztekoa. Egun, denboran zehar urte bete atzera begiratzen dugunean, kontzientzia gehiago daukagu, bizi izandakoak astindu egin gaitu. Zenbateraino aldatu diren gure bizitzak, gure eguneroko jarduerak eta ohiturak, gure arteko harremanak eta elkarrizketak, eta nola ez, gure sententzioak!

Giza alderdia alde batera utzi gabe, gaurko nire hausnarketa zientzian zentratuko dut. Azken urte honetan «epidemiologia» hitza termino zientifikoa izatetik eguneroko

hizkuntzan txertatuta egotera igaro baita. Horregatik, epidemiologian aditua den emakume bat gogoratu nahiko nuke, Florence Nightingale. Neu matematikaria izanik, eta mundua pandemiaren erdian egonik, ez dut martxoaren 8a hobeto islatzen duen ordezkariarik imajinatzen. Nightingale 1820ko maiatzaren 12an jaio zen. Formazioz erizaina zen, afizioz matematikaria eta estatistikaria, hain ezberdinak diren bi arlo horiek ezin hobeto uztartu zituen berak, Epidemiologia arloan aitzindari izanik. Eta aprobetxatuko dut baita berataz idazteko hirugarren arrazoi bat aipatzeko, 2020an bere jaiotzaren 200. urteurrena bete zela, hain zuzen.

Crimeako Gerran jabetu zen Nightingale hilkortasunaren zati handi bat ez zela gerrako zaurien ondorioa, garbitasun faltaren eta osasun baldintzen ondorioa baizik. Baina, bere lorpenik aipagarrienak bake garaian egindakoak dira. Gerrako ikaskizunak hausnarketarako eta datu bilketarako erabili zituen, harrezkero hilkortasuna murrizteko, ospitaleen kudeaketa hobetzeko eta Osasun Publikoko neurriak ezartzeko balio izan zuten ebidentziak erakutsiz. Nightingalen ekarpen garrantzitsuenetako bat datuen balioa azaleratzea izan zen. Datuak erabili zituen berak, gaur egun Osasun Publikoan funtsezkotzat hartzen ditugun aspektuen garrantzia agintari britainiarrei erakusteko. Datuak aurretik ere bazeuden eskura, ez zen bera datu horiek biltzeaz arduratu. Bere ekarpena zera da, behin datuak antolatu eta modu egokian aztertuz, ateratako emaitzak konbentzitzeko moduko argudio gisa erabiltzea lortu zuen. Berari dagokio, esate baterako, azalera polarreko diagrama edo arrosa-diagrama izeneko adierazpen grafikoaren lehen erabilera. Mende t'erdi pasa den arren, uste dut asko daukagula ikasteko, bereziki gaur egun.

Datuen berebiziko garrantziaz asko eztabaidatu da 2020. urtean, bai komunikabideetan, baita kudeaketa eta politikan aritzen direnen artean eta, nola ez, ikertzaileon artean ere. Dauzkagun osasun-datuen informazio eta kudeaketa sistemak zaharkituak eta zurrunkak direla erakutsi digu pandemiak. Eta nire ustez, ez da errealitate horren kritika zorrotzak egiteko momentua, horri erremedioa jartzeko pausuak ematekoa baizik. Zentzu horretan, bizitzen ari garen egoerari buruzko gogoetak etorkizun hurbilerako erronkak planteatzeko balio behar digu.

Askok dakizuenez, nire afizioetako bat sukaldaritza da, horregatik dut gustuko datuak sukaldeko osagaiekin alderatzea. Janaria mahaiari jateko prest eta aparteko zapoareekin egotea, osagaien eskuragarritasunaren eta kalitatearen arabera izango da, besteak beste. Askok ikasi dugu horretaz azken urtean. Datuak bildu eta prozesatu betidanik egin dira, emaitzak lortuz eta estatistikak publikatuz. Baina orainoan, datu gutxi genituen, ez zegoen aurre-estatistikarik, eta gainera ez genituen

behar bezalako premiarekin prozesatzen. Hozkailua beterik zegoen, baina janaria ez zen nahi bezain azkar eta kalitatez iristen mahaira. Datuen bilketa eta kudeaketa eraginkorra behar dugula ikasi dugu. Eraginkorra azkartasunean eta kalitatean, baina etika ahaztu gabe. Etika aipatzen dut, zeren seguruenik hainbat kasutan konfidentzialtasuna bermatzeak prozesua moteldu egiten du. Baina alde horretatik, konplexua izan arren, oreka lortzea beharrezkoa ezik, ezinbestekoa da. Zer esango lukete mahaikideek oturuntzaren ondoren elikagaien segurtasun-neurriak ez zirela errespetatu egiaztatuko balute? Beraz, aurrez aurre daukagun erronka horietako bat datuak biltzea, biltegitratzea, prozesatzea eta aztertzea da, konfidentzialtasuna bermatuz, baina erabakiak hartzeko emaitza interpretagarriak azkar lortuz.

Erronka horri aurre egiteko, disziplinarrekotasuna eta elkarlanaren garrantzia azpimarratu nahiko nituzke. Zientziari dagokionez, denok hausnartu dugu inoiz disziplina arteko edo disziplina anitzeko kontzeptuen garrantziaz, nahiz eta kasu askotan teorian izan den. Pandemiaren kudeaketak erakutsi digu, modu bortitzean gainera, kolektibo eta arlo zientifikoaren arteko lankidetzaren oso garrantzitsua dela, behar-beharrezkoa. Jatetxean ez du sukaldariak soilik lan egiten. Jeneroa aukeratu eta erostetik hasita, jakiak prestatuta eta platerrean jarri arteko prozesua ez da sukaldariaren meritua bakarrik, baita xehetasunak zaintzen dituen talde osoarena ere. Era berean, osasun-inguruneak beste profesional batzuen laguntza behar izan du, eta beharko du, pandemiari eta bere ondorioei aurre egiteko; iturri oso ezberdinetako profesionalak, besteak beste biologoak, epidemiologoak, matematikariak, estatistikariak, ekonomialariak edo fisikariak.

Datuen Zientzia deitzen zaion arloa nahiko berria da, baina ez pasaden urtekoa, hainbat urte daramatza termino horrek gure hizkuntzan txertatuta. Estatistika, adimen artifiziala, «big data», «machine learning» edo modako antzerako terminoekin nahastuta, edo azken hauen sinonimo gisa, erabiltzen dugu maiz, baina funtsean gehienontzako gauza berataz hitz egiten ari gara. Datuen zientzia disziplina arteko arloa da, egituratuak edo egitura gabekoak diren datuetatik abiatuta ezaguera sortzeko metodo zientifikoa erabiltzen duena. Ezin hobeto eusten dio arlo horrek aurrez aurre daukagun erronkari, behar-beharrezkoa da disziplinen arteko elkarlana eta. Esate baterako COVID-19 gaixotasunaren kasuan: osasun langileak datuak bildu eta ulertzeko; informatikariak datuak maneiatu, metatu eta biltegitratzeko; abokatuak datuen konfidentzialtasuna babesteko; estatistikariak datuak aztertzeko eta aurreikuspenak egiteko; matematikariak eta injineruak metodo eta algoritmoak modu eraginkorrean inplementatzeko; epidemiologoak emaitzak eta aurreikuspenak interpretatzeko eta testuinguruan jartzeko; eta

azkenik, kudeatzaileak eta politikariak datuetatik abiatuz lortutako emaitzetan oinarrituz erabakiak hartzeko. Unibertsiitate ugari dira Datuen Zientziaren inguruan ikasketak eskaintzen dituztenak gaur egun. Disziplina horretan adituak formatzeko esfortzua egin behar dugula esango nuke, ez bakarrik alarmak jotzen duenean, etorkizunera begira estrategia moduan baizik, ezinbestekoa den disziplinartekotasun hori bermatuz. Egungo ikasle horiek etorkizunean lan munduan arrakasta izango dutelakoan nago.

Eta azken erreflexioak zirkulua ixtera eramaten nau. Nightingale datuen zientzialaria zela esan genezake, beregain hainbat arlo ezberdin bilduz disziplinartekotasuna lehen pertsonan adierazten duena. Martxoaren 8aren atarian egonda, esan beharra daukat, emakume ugari direla munduan, arrazoi ezberdinengatik eta testuinguru ezberdinetan, beregain hainbeste funtzio hartuz, Nightingalen antzera, emakume orkestra diruditenak. Horietako batek ere ez du Nobel Saria jasoko, baina agian egunen baten gure bizitza eraldatu dezakeen ekintzak bultzatuko dituzte.

Letxugak erein,
eta nekez haziko
dira orburuak;
aniztasuna eta
zaintza erein, eta
nekez hasiko dira
pandemiak

Letxugak erein, eta nekez haziko dira orburuak; aniztasuna eta zaintza erein, eta nekez hasiko dira pandemiak

Arantza Arrien Goitiandia.

Nekazaritzako ingeniaria, bihotzez eta ekinez emakume baserritarra.

COVID-19aren sorrera

Egungo gaitz berri askoren sorrerak harreman estua du basoak eta oihanak suntsitu eta monolaborantzaz ordezkatzearekin. Horren adibideak dira zoonosiak, animaliangandik gizakiengana igarotzen diren gaixotasunak. Nekazaritza industrialak espezieen arteko elkarreragina aldatu eta ekosistemak zatitu eta txikitu egin ditu.

Eta, azken hamarkadetan, sinestezinak diruditen nekazaritza-sistemak daude munduko biztanleriaren elikagaien jatorrian. Gure izenean egiten diren gauzen adibide bat emango dugu jarraian.

- Tomatea garaiz kanpo jan eta urte osoan eskuragarri izateko, enpresa almeriar-portugaldar batek, Arabako Espejo herrian, 18 hektarea lurrik gabeko negutegi-sistema hidroponikoz bete eta, bide batez, esango du Barrongo urtegia beharrezkoa dela. Hori guztia kontsumitzaileen mesedetan, *Kilometro Zero* joeraren alde.
- Bost enpresaren esku dago Europako elikagaien manipulazioaren eta txikizkako merkataritzaren %56.

- Bost enpresaren esku dago Europako hazien merkatuaren %95.
- Europako nekazal lurra oso pertsona gutxiren eskutan daude.
- Espainiar Estatuak 80.000 tona patata inportatzen ditu Erresuma Batutik, eta 20.000 tona patata esportatzen ditu Erresuma Batura.
- Kontsumitzen ditugun lekale eta fruituek, batez beste, 5.034 km egiten dituzte gure platerera iritsi arte. Abereen bazkarako pentsuek, batez beste, 7.901 km egiten dituzte ukuiluetako asketara iritsi arte. Gero eta urrunagotik datoz garbantzua, garia, meloiak eta abar.
- Ekoizten diren elikagaien herena kontsumitu aurretik galtzen da; jana hondakin bihurtzen da.

Sistema neoliberal, heteropatriarkal eta globalizatuek dute krisi klimatikoaren arduraren zati handi bat; horiek dira baserritarrok hainbestetan salatu ditugun prezio-soldata txikien arduradunak, nekazarien lan-baldintza eskasen arduradunak, baserritar txikiak hein handi batean desagertzearen errudunak, edota emakume nekazariak jasaten dugun eredu baztertzailaren iturri.

Datuak izugarriak dira: Argentina, Bolivia, Brasil, Paraguai eta Uruguaioko nekazal lurren %60 esportaziora bideratutako sojaren monolaborantzarako erabiltzen dira. Soja ekoizpen horren %77 abereen elikadurara bideratzen da, eta gainontzekoa pertsonen kontsumora: soja esnea edo tofua egiteko, eta «bioerregaiak» sortzeko.

Berdin gertatzen da Afrikako parajeetan dauden palmondo landaketekin; mundu osoko jaki prozesatu askoren osagaia eta biodieselaren lehengai den palmondo-olioa ateratzeko baliatzen dira. Bestalde, abereak ere (txerriak, oilaskoak eta behiak, batik bat) antzeko ereduan oinarrituta hazten dira Katalunian, Nafarroan zein Estatu Batuetan.

Neurriak hain dira gehiegizkoak, non basoko fauna murriztu eta eremu txikietan konfinatuta gelditzen baita. Dentsitate horren eraginez, birusen eta mikrobioen karga errazago ugaltzen eta eraldatzen da, eta, horrela, aukera gehiago dute pertsonengana iristeko. Baditugu aurrekariak: Ebola saguzarretik pertsonengana pasa zen palmondoz inguratutako Afrikako herri batean, A gripea ere hor dago, eta orain COVID-19a.

Baina, zein da, bada, gaitzaren iturburua? Denon artean mantentzen eta elikatzen dugun sistema kapitalista heteropatriarkalaren diruzalekeria edo ezin-asea, gero eta gutxiagoren esku jartzen baititu lurrak, mineralak, itsas baliabideak, ura... eta tokiko giza-taldeak bortizki migratzera edo obedientziara kondenatzen baititu.

Gure lehentasun partikular eta kolektiboen zerrendan aldaketak eragin behar ditugu. Politikari ausartak behar ditugu, lehentasun politiko gisa ezar daitezzen horrelako politikek sortzen dituzten pandemiak saihestea eta larrialdi egoeretan inposaketatik haragoko erantzunak artikulatzea.

Ideak, gogoetak eta ebidentzian pandemia garaian

Krisi garaian argia, ura, etxea edota telefona ordaintzeko larri dabilzanek non murrizten dute gastua? Elikaduran.

Elikaduran mozten da, eta zabor-jana da nagusi 1000 euroko soldata duten langileen erosketetan, elikagai bankuetan, diru publikoz kudeatutako jantokietan... Gaizki jateak, horri lotutako gaixotasunek eta botiken kontsumoak sostengatzen dute sistema.

Bitxia badirudi ere, sistema krisian sartzean, ez gaitu inora eramango sistema bera sostengatzen duten erantzunak behin eta berriro emateak. Izan ere, gaizki jateak eragin zuzena du osasunean, eskola arrakastan eta aukera berdintasunean. Hori ikusita, esan dezakegu sistemaren indarkeria dela baliabide ekonomiko gutxien dituzten pertsonak gaizki elikatzea derrigortzea.

Horiek horrela, sistema agroekologikoak baliatuz lan egiten dugun baserritarren zeregin nagusia da inguruko jendearentzako elikagai osasungarriak ekoiztea. Eta, hartara, erronka nagusia da politiketan eragitea, bateragarriak izan daitezzen agroekologian diharduten baserritarrek irabazi duinak izatea eta jendarte era osasuntsuan elikatzea, nahiz eta bi gauza horiek bateraezinak diruditen.

Hala, gizarte-zerbitzu publikoetara bideratzen diren elikagaiak ekoizle agroekologikoei erosteak baserritar txiki asko duintasunez mantentzea berma lezake, baita erreleboa erraztu eta emakume baserritarren lana duindu ere. Izan ere, Europan emakume bat buru duten ustiatzekiek, batez beste, 1, 2 hektareako tamaina dute, eredu

agroekologikoan lan egiten dute eta Europako nekazaritza arloko diru-laguntzen %18 jasotzen dute.

Pandemiak gure herri txikietan eragin dituen aldaketez

Harridura eta kezka ikusi dugunez, azken hamarkadetan hainbeste zabaldu den «landafobia» eta naturarenganako mespretxua nekazal *boom* bihurtu da pandemiaren eraginez. Modan dago iragarkietan nekazaritza aipatzea eta landa inguruetakoa jendea goraiatzea; supermerkatu kate handietan beren lekua hartu dute zigilu ekologikodun produktuek; baserritar txikiei laguntzearen aldeko propaganda egiten da edonon... Merkatu berri bat ikusten ote dute horretan? Zer plan diseinatu ote dute gobernuek landa-eremuak suspertzeko?

Landa-eremuak suspertzea ezin da izan edozein proiektu aurrera eramateko aitzakia; ezin da izan, besteak beste, makro-ustategi industrialak aurrera eramateko aitzakia.

Etxea erosteko adina diru duen jende askok herri txikiei bota die begia, herriaren jasangarritasunean parte hartzeko inolako asmorik gabe. Horrela, areagotu egiten da etxebizitzekiko eta lurrarekiko espekulazioa, eta murriztu egiten dira lurra lantzetik bizi nahi duten pertsonen jarduerari ekiteko behar dituzten baliabideak eskuratzeko aukerak.

Esandako guztia gorabehera, poztu egin gaitu elikagai-ekoizleen lana balioesteak, jakina. Baina, era berean, kezkatu egiten gaitu ikusteak hasia dela landa inguruetakoa inbasio neoliberalaren bidea; izan ere, eremu horietan bizi diren eta inguruak mantentzen dituzten pertsonen esku egon beharko luke lurri buruzko erabakiak hartzeko eskumena.

Bestalde, begi-bistan gelditu da zein garrantzitsua den herrietan zerbitzuak egotea, herri txiki askotan 15 km egin eta bi herri igaro behar baitira ogia, esnea edo komuneko papera erosteko. Begi-bistan gelditu da, halaber, denda txiki ugari desagertu egin direla eta, haien ordez, saltoki handiak eraiki direla hainbat kilometrotara. Laburbilduz, begi-bistan gelditu dira gure menpekotasunak eta premiak.

Teknologien alternatibak zer pentsatua ematen digu

Pandemiak berretsi egin du teknologiak ez direla neutroak. Izan ere, teknologiak traktore indartsu eta adimentsuen bidez iritsi dira nekazaritzara, maskulinitateari lotuta.

Teknologiak kontsumoa, esfortzua eta inpaktuak gutxitzeko balio behar du, jakina. Hori horrela, teknologia erabili behar dugu, bai, baina ez du zertan uneoro presente egon; hau da, teknologia erabili nahi dugu, baldin eta bizitza duintzeko, kontziliatzeko edota parte-hartze sozial eta politikoa bermatzeko balio badu.

Baratzak hemen eta hor, edonork

Baratza-ekosistemaren parte garenon aspaldiko aldarria da pertsona orok duela bere elikagaiak ekoizteko eskubidea.

Hortaz, poz handia ematen dit hainbeste jende baratzak jartzen ikusteak, oilandak erosten, lurretik ikasteko gogoz, eskuak lurrez margotzen, nekazal hizkuntza berreskuratzen, naturaren erritmoa ulertzeko ahaleginean eta debeku absurdoen gainetik... Hau eromena landare edo oilanda ekoizle-saltzaileena!

Elikadurarekin dugun harremana aldatu du pandemia honek. Zenbateraino? Noiz arte?

Eta ezarri zen konfinamendua/etxeratze agindua, inprobisazioa. Baina elikagaiek ez dute inprobisatzen, beren erritmoa dute.

Hala, birusak hainbat galdera planteatu dizkigu: nork ematen dizu jaten? Eta nork nahi duzu bihar eta etzi jaten ematea?

Baserritarren etxalde inguruko lan-bizitza ez du aldatu COVID-19ak, ez du izotza atzeratu, kazabarra berdin erori da Errioxa aldeko mahastietan, belarra ederki hasi da larreetan, bero galantak jo ditu lekak eta tomateak, berdin erein, landatu, jorratu, zaindu, jetzi dute nekazariak, berdin belarra moztu, fardo eta bolak egin... Merkaturatzean, ordea, bestelakoa izan da kontua, onerako eta txarrerako.

Eta ezarri zen konfinamendua/etxeratze agindua; bide berriak asmatu zituzten ostalaritzari, jatetxe eta jantokiei saltzetik bizi ziren baserriek, baita galerak jasan

ere. Eta denda txikietan, kooperatibetan, kontsumo taldeetan, ekonomatoetan zorioneko kontsumo igoera egon da.

Baserritarren merkatuak dekretuz itxi zituzten... Eta BBKri eta administrazioari lotutako entitateetatik deiak jaso zituzten, «soberakinak (merkatuetan saltzen uzten ez dituzten horiek) supermerkatuetara (Eroskira) bideratzeko» eskatuz. Ilarak egin ziren supermerkatu handietan, kontrolak pasatu, azalpenak eman, eta tokia aldatu behar izan zen kontsumo taldeen banaketa-puntuetan... Online zein Whatsapp bidezko salmentak asmatu, konpartitu, antolatu ziren, eta elkartasun-sareek merkatuak irekitzea lortu zuten.

Elkarri lagundu genion. Hurbildu ziren kontsumitzaile berriei ongi etorria egin genien, eta falta zitzaienei arreta eskaini...

Bitartean, Madrilgo erkidegoak Telepizzako menuak banatzen zizkien bekadun ikasleei, eta Huelvan eta Almerian 400 jornalari lanean, ohikoak dituzten prekarietate baldintzak gogortuta: ez musuko, ez eskularru; txaboletan pilatuta, eta ur edangarririk gabe; kasu askotan kontraturik gabe, eta mugitzean isuna jasotzeko arriskupean... Lehen ere lanera nahikoa pilatuta joaten ez baziren, egoera horretan nola egin asmatu ezinik.

Eta, bitartean, AHT nekazal lurak suntsitzen Atxondon. Apirilaren 17an baserritarren borroken eguna, «Etxean geratu, isilik ez» lelopean.

Eta ezarri zen konfinamendua/etxeratze agindua. Sukaldeko denbora berreskuratzea, sukaldeko lana konpartitzea, egunero erosketa poltsak betetzen dituzten elikagai ultraprozesatu industrializatuak ordezkatzeta... Eta orain zer?

Eta ezarri zen konfinamendua/etxeratze agindua. Baserritarrek sentitu egin dute jendartearen estimua, sentitu dute gauzak aldatu ahal direla.

Lehengoa jarraitzen du, ordea, administrazioaren immobilismoak, gauza bat esan eta bestea egiteko ohiturak.

Bioaniztasuna eta eskala txikia oinarri dituen nekazaritza posible egiten denean, agerian geratzen gara emakumeak, bakarka zein taldeka. Planeta bizi batean, bizitza guztiak dira garrantzitsuak, beren aniztasunean.

Inoiz baino
gehiago,
gorputzari
erreparatzea

Inoiz baino gehiago, gorputzari erreparatzea

Mari Luz Esteban Galarza.

Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia sailaren irakaslea,
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean. UPV/EHU.

María Eugenia Rodríguez Palop-ek (Gil, 2020) azpimarratu du pandemiak prekarizatu, ahuldu egin gaituela emakumeok, zaintza-lanen lehen lerroan egoteagatik, baina, batez ere, neurri ofizialetan horren eragin diferentziala kontuan ez hartzeagatik. Hori bai, krisiak emakume batzuk beste batzuk baino gehiago jo ditu, osasun-zentroetan, zaharren egoitzetan eta etxeetan zaintza-lanetan «gorputza jartzen» ari diren horiek izan baitira kaltetuenak (langile guztien % 80 emakumeak). Datu bat ematearren, osasun-langileen artean emakumeen kutsatzeak gizonenak baino hiru aldiz handiagoak izan dira. Horri gaineratu behar zaio kontabilizatzeke dagoen min emozional eta psikologikoa.

Emakumeen artean dauden desberdintasunak kontuan hartzea funtsezkoa da eremu kolpatuenetatik sortzen ari diren kexa eta protestekin elkartasuna adierazi ahal izateko, politika ere ikuspegi sindemiko batetik eginez. Azken urteotan, biolentzia eta bakegintzaren harira sortuz joan garen justizia, aitortza eta erreparazioari buruzko gogoeta eta praktika feministei krisi berri honen bizipenari dagokiona erantsi beharko diegu.

Baina harago ere joan gaitezke. Aitortu ala ez, mugimendu sozialak eta mugimendu feminista modu berezian ukitu ditu pandemiak. Ez bakarrik bilerak edo kaleko ekintzak birmoldatu behar izan ditugulako eta egunerokotasunaren parte nagusi bat online bihurtu dugulako, baizik eta gizarte osora zabaldu den etsipen, tristura

eta bakartze sentipenak aparteko eragina izaten ari direlako gudan, gure jarduera publikoarekin, itxuraz behintzat, jarraitu arren. Eta nago ez gaudela horretaz guztiaz behar bezala gogoetatzen. Pandemia ez da bakarrik elkartzeko aukerei edo ahalmen kritikorako gaitasunari erasaten ari, jarduera politiko osoari baizik.

Azken hilabeteotan zabaldu diren ezkerreko diskurtso eta analisi feministetan ez da apenas hitz egin krisiaren fenomenologiaz, bai bakarka bai taldeka dakartzan eraldaketa korporal-emozionalerik. Eta ez dauka zentzurik analisisen eta ekintzen premia azpimarratzeak esperientzia, bizipen eta sentsazio intimoei arretaz erreparatu gabe. Eta maila horretan, nolabaiteko gelditasuna, nolabaiteko geldotasuna ere sumatzen da, gurean behintzat.

Rodríguez Palopek gogorarazi du, baita, mugimendu feminista zerbait bada korporala dela, hau da, kaleetako mobilizazioak eta emakumeen arteko hurbiltasun fisikoa gure egitekoaren ardatz nagusia direla. Hortaz, koronabirusaren ondorioz gorputzen artean ezarri den distantziak, nahitaez, inpaktua izan behar izan du mugimenduaren izaeran eta haren artikulazioan. Behin eta berriro esaten dugu berriz ere elkar besarkatuko dugula, gako osoa hor balego bezala. Baina aspektu hori osotasun baten parte baino ez da, eta gainera, badugu arriskua elkarren arteko topaketa/hurbilketa gehiegi sinplifikatzeko, gehiegi sentimentalizatzeke.

Distantzia fisikoa bestean eta norberaren babesaren neurria da, argi dago, zeina hiperkonexio digital batez konpentsatzen ari garen, munduan gertatu den dezelerazioak eta iraulketak eragiten diguten bertigoaren aurreko estrategia gisa. Konfinamendu garaian horrela idatzi zuen Teresa Rivera Garzak (2020): «Badirudi hor gaudela, denok batera, hitz egiten eta ibiltzen, elkar ikusten, baina gorputzak badaki ez gaudela hor. Disonantzia horrek akituta utzi gaitu». Amador Fernandez Savaterrek enfasia jarri du egunotan nabaritzen ari garen arraro egotearen sentsazioan. Horrela idatzi du: «Arraro egotea bizirik jarraitzea da. Normalizazioaren aurkako galderak, ondoezak eta nahiak azpimarratzea. Hori guztia landu beharreko gai bihurtzen saiatzea, desio berri bat, bizitzeko modu berri bat asmatzeko. Arraro egotea gure galderak defendatzea da, etenak utzi dizkigun markak gauza baliotsu gisa gordetzea, geure buruari eta errealitateari beste arreta bat jartzea». Beste era batera esanda, arraro egoteak politika berrikusteko eta birmoldatzeko aukera eman beharko liguke.

Nola edo hala, esan daiteke larruazalaren mudantza-prozesu indibidual eta kolektiboa bizi dugula, sentipenen, zentzumenen eta emozioen birkonfigurazio orokor bat.

Eta horretan ere ez dut uste «lehengora» itzuliko garenik. Beraz, prozesu horren zehaztapenak eta ondorioak xehe-xehe aztertu beharko genituzke, aldaketa guztiak ezkorrek direla pentsatu gabe. Egun, inoiz baino areago, gorputzak garrantzi osoa hartu du. Halere, Baruch Spinozari (1980) jarraituz esan dezakegu gorputzak zer egin dezakeen jakin gabe segitzen dugula. Eta ideia horren atzean badago potentzial politiko erabatekoa.

Bizi duguna aztertzeko lagungarria izan daiteke gorputzaren eta emozioen teoriaren ekarpenak aintzat hartzea. Horrekin lotuta, Valerie Walkerdinek (2010) Galesko herri batean gertaturiko desindustrializazioari buruz egin zuen ikerketaren harira esandakoa gogora ekarri nahi dut. Autore horrek adierazi zuen testuinguru horretan, arlo ekonomikotik harago, kohesio-zentzua galdu eta gizarte-harremanak pobretu zirela. Esther Bick-ek (1968) gizakien segurtasun-sentsazioan larruazalak duen garrantzia azpimarratu zuen, kontaktu fisikoaz, ahotsez, usainez edo objektu ezagunez ari zela, hala nola, haurrek segurtasuna berreskuratzeko mehatxatuta sentitzen direnean duten moduz. Eta horri bigarren azala deitu zion, azal psikologiko-emozionala. Eta Walkerdinek bigarren azalaren galera bezala interpretatu zuen populazio hartan jazotakoa, prozesu ekonomiko, fenomenologiko eta intersubjektiboa.

Ez al gaude gu ere bigarren azal horren umezurtz? Nola berrosatzen ari da gure sententzialtasuna, banakoa eta soziala, eta ze ondorio ditu horrek politika mailan?

Zenbait autoreren ideietan oinarriturik, esan dezakegu politika eta aktibismoa fenomeno fisikoak, afektiboak eta dinamikoak direla, non praktikak, afektuak eta diskurtsoak elkar txirikordatuta gelditzen diren. Horren bidez, subjektibitateak, baina baita gure elkarrekin ere, transformatuz joaten dira, barrukoa eta kanpukoa, biak, eraldatzeko aukerak zabalduz. Azken batean, mugimendu bat «gorputzen fabrika» baino ez da; nortasunak, espazioak, objektuak eta harremanak moldatzeko eta sortzeko lekua eta denbora.

Edertasuna neurtzeko distantzia zuzena elkarriketarena dela idatzi zuen Julio Ramon Ribeyro idazle perutarra (ikus Egaña, 2020). Politika neurtzeko distantzia egokia ere, gehituko nuke, elkarriketarena da, gorputzen artekoa, haren berezitasun, ñabardura eta egokiera guztiekin.

Dimentsio korporalari eta emozionalari begiratzea nahitaezkoa da aditzeko covid-19 garaia zer nolako eragina izaten ari den feminismoan. Erantzunak eta galdera berriak ere gorputzen peskizan etorriko dira.

Bibliografia

Bick, Esther (1968) The Experience of the Skin in Early Object Relations. *International Journal of Psychoanalysis*, 49:484–6.

Egaña, Andoni (2020) Tarteak.
<https://www.berria.eus/paperekoa/1881/023/001/2020-07-09/tarteak.htm>

Fernández Savater, Amador (2020) Estamos raros, contra la vieja y la nueva normalidad.
https://www.eldiario.es/interferencias/raros_132_6064094.html

Gil, Andrés (2020) María Eugenia R. Palop (Unidas Podemos): Los Estados son los grandes diques de contención de cualquier progreso en la Unión Europea (Entrevista).
https://www.eldiario.es/politica/maria-eugenia-r-palop-unidas-estados-son-grandes-diques-contencion-progreso-union-europea_1_6270204.html

Rivera Garza, Cristina (2020) Del verbo tocar. Las manos de la pandemia y las preguntas inescapables. *Especial Diario de la Pandemia*. México: UNAM.
<https://www.revistadelauniversidad.mx/articles/6428d816-f2cf-420d-977e-c9c0f8fc7427/del-verbo-tocar-las-manos-de-la-pandemia-y-las-preguntas-inescapables>

Spinoza, Baruch (1980) *Ética demostrada según el orden geométrico*. Madrid: Orbis.

Walkerdine, Valerie (2010) Communal Beingness and Affect: An Exploration of Trauma in an Ex-industrial Community. *Body & Society*, 16(1):91-116.

Gure HH
eta LHko
ikastetxetik
Pandemiaren
irakurketa

Gure HH eta LHko ikastetxetik Pandemiaren irakurketa

Txiki Estivariz Martínez de Antoñana.

Haur hezkuntzan diplomatua eta LHn graduatua P.T minorrarekin.
Gaur egun, Gasteizko Lakuabizkarrako eskolan P.T irakaslea da.

Oihana Plazaola Ugarte.

Haur hezkuntza eta Pedagogia Terapeutikoan diplomatua. Gaur egun,
Gasteizko Lakuabizkarra eskolako HHko koordinatzailea da.

2020ko Martxoaren 8a, gure artean behintzat, pandemia urtearen 0 eguna izan zela esan dezakegu. Igande hartan azken urteetan hauspotutako emakumeen nazioarteko eguna indartsu etorri zen, aldarriak ahoz gora, zaintzak erdigunera... ez zen egun hartako gai bakarra izan, azken asteetan munduaren beste txoko batzuetan COVID-19a ezin kontrolatuta zebiltzan, eta guri urrun zegoela iruditu arren, etxeko sukalderaino sartua geneukan.

Jendartean ordura arte ezagututako errealitatearen azken hasperenak ziren eta gu ezjakintasunean bizi ginen.

Denborak eta distantziak ematen duen jakinduriarekin orain lehen aste haiek aztertuta honako laburpena egin dezakegu: politikoen aldetik antzerki asko, ezjakintasuna, erabaki kontraesankorrak, debeku ugari, eta hezkuntza Sailaren eskutik bereziki komunikabideetan propaganda asko, baina langileenganako mezuetan isiltasuna. Bestalde, eskoletan gauden kolektibo desberdinetako langileon artean urduritasuna nagusi, batzuen kasuan lanpostuak kolokan, umeei zegokienez, familia adina egoera, zaintzen afera puri-purian, jendartea dardarka

egoera berriaren aurrean. Eta nola ez, beti bezala errudunak aurkitu nahi izan zituzten, Martxoaren 8ko manifestazioaren ondorioz, pandemia zabaltzearen ardura, feministoi leporatu ziguten.

Eskolari dagokionez, bertako langile guztiok egun batetik bestera ordu arte gutako inork egin ez zuen zerbait asmatu behar izan genuen, tele eskola. Pandemia garaian etxean genituen ikasleei irakastea. Egia da, guztiontzat zela berria egoera eta Hezkuntza Sailean lanean daudenek ere ez zutela erreferentziarik, baina oso poliki eta oso gaintik erantzun zuten. Eskola publikoko langileok eta familiek orokorrean ez genuen babesik sentitu, oso bakarrik egin genuen bidea. Ikasturtea bukatu bitartean Hezkuntza Sailak komunikabideetan behin eta berriro egin zuen propaganda guztia digitalizazioan oinarritua zegoen, beraien esanetan dena ondo zihoan, ez zegoen zertaz kezkatu.

Eta guk kezkak genituen, kezka handiak.

Hezkuntza mundutik at dauden pertsonak eta komunikabideei kasu egiten dietenek, garai hartan 10 urteko ikasle bat irudikatuko zuten etxean, familiarekin, ordenagailu polit batekin eta inongo zailtasunik gabe lanak txintxo-txintxo egiten.. Baina, guk badakigu eskola anitza dela, eta ikasle denek dituztela beharrak, batzuk besteek baino gehiago, baina denek dituzte behar bereziak eta hori ezin da ordenagailu baten bidez konpondu. Ikasleek eskola behar dute, eta irakasleok ikasleak eskolan behar ditugu ikaste-irakaste prozesua bere osotasunean eman ahal izateko, arlo akademikoaz gain, ezinbestekoak diren, arlo soziala, emozionala... landu ahal izateko. Bestalde, Haur hezkuntzako ikasleei buruz ere ezer gutxi entzun genuen.

Guzti hori komunikabideetan ikusten eta irakurtzen ari ginen bitartean, Eskolako familia bakar batek eskatu zuen internet izateko txartela, baina ez zitzaien inoiz heldu. Bestalde guk badakigu ordenagailu baten bidez ez dela dena konpontzen eta etxe bat baino gehiagora oinarrizko materiala bidali genuen, margoak, jostailuak, ipuinak... Hala ere, errealitateak astindu ederra eman zigun familia batek janaria eskatu zigun egunean!

Bien bitartean arazo larri bat genuen jendartean. Umeak etxean zeuden, lanera joan behar zutenek ezin zituzten seme-alabak aitona-amonekin utzi ordura arte bezala, ezta arriskua zuten beste pertsona batzuekin ere. Helduen zaintza ez zen errazagoa izan, askoren kasuan zaintza horien ardura hartu zuten kutsatuko zituzten arriskuaren

beldurrarekin. Bestalde ez dugu ahaztu behar beste zaintza motak ere badaudela, familia nuklearretik at kokatzen direnak: lagunak, auzokideak, pisukideak, guzti honek feministok urteetan aldarrikatutako zaintzen afera agerian utzi zuen. Eta aurrera begira daukagun errealitateak lege berriak eta aukera berriak eskatzen ditu, zailak suertatzen diren egoeren kudeaketa egin ahal izateko.

Gure eskolan dena ez zihoan ondo, tele eskola ikasleak galtzen hasi zen, familia batzuk gero eta urrunago sentitzen genituen, asteak aurrera joan ahala, nekea nabaria zen umeengan baita ume horien zaintzak etxean egiten ari ziren pertsonengan ere, kasu gehienetan emakumeak. Beraiek izan baitziren ikastetxearekin kontaktua mantendu zutenak, lanak birbidali, zalantzak argitu, umeei azalpenak eman... Ikasleria interesa galtzen hasi zen, digitalizazioa ez zen nahikoa, analogikoak ere ez zuen aukera gehiegirik ematen eta bien bitartean ikasturteko gutxieneko helburuen lorpenean jo eta su ari ginen gure programazioak egokitzen. Eta askotan esan ohi den bezala paperak dena jasaten du baina errealitatea ez da izaten hain erraza.

Ikasturte bukaera oso esanguratsua izan zen, ikasleekin bilera xume bat egin genuen, agur esateko. Ume asko oso gaizki ikusi genituen, aurretik ere bagenekien hainbat etxe ez zirela umeentzat toki segurua, baina aurpegi haietaz oroitzak oraindik ere hotzikara sortzen digu. Jendartean dauden datuei kasu eginez gero gure ikasleen artean, tratu txarrak, abusuak etab. jasandakoak genituen, ez geneukan inongo mediorik haiei laguntzeko eta gainera uda zetorren aurretik.

Irakasleok uda deskantsu hartzeko erabiltzen dugu, hurrengo ikasturterako pilak kargatzeko. Aurtengo kasuan behea jota geunden, eta gainera bagenekien irailean berriro hasi behar genuela pandemiaren kudeaketarekin, eta askok tele eskola berriro bueltatuko zela uste genuen arren, zorionez ez da hala izan. Eskola eremu segurua omen da, langileok eta umeek bereziki jasan ditugun aldaketa guztien ondorioz. Baina egiari zor, esan beharra dago ikasleriak asko galdu duela, ikastetxean eta patioan askatasunean mugitzeko aukera, bere gelakoak ez diren beste guztiekin jolasteko, ikasteko eta harremanak izateko aukera, taldean materiala partekatuz ikasteko aukera, etab.

Oraindik ez dakigu pandemia honek zenbat iraungo duen, ezta zein norabide hartuko duen ere, eta dagoeneko ikusten ari gara 2020-2021 ikasturtean zehar, konfinamenduak umeengan eragindako sarraskiaren ondorioak. Etxe askotan

indarkeria matxista pairatu dute, eta hau gure begiekin ikusi eta belarriekin entzun dugu umeengandik. Egoera larria da, Indarkeria hau modu askotan ematen ari da, psikologikoki, fisikoki... Eta irakasle eta hezitzaileok gure eskuetan dagoen gutzia egin arren, ez da nahikoa, ume horiek babesik gabe jarraitzen dute. Sistemak oztopo asko jartzen ditu neurriak jarri ahal izateko, eta horrek sortzen digun amorrua sekulakoa da.

Eskolan ditugun ume guztiek behar bereziak dituztela esan dezakegu are gehiago konfinamenduaren ondorioz. Hezkuntza sailak laguntza berdinak bideratzea erabaki du edozein kasutan, ikasleen profila kontutan hartu gabe, ezta eskolako ISEKa ere. Euskarari dagokionez, inolako baliabiderik ez, orain arte geneukanarekin jarraitzen dugu, kasu onenetan HIPI figura lanaldi erdian ikastetxe bakoitzeko. Ikasle askoren kasuan euskararekiko kontaktua eskolako harremanetara soilik mugatu zen. Ondorioz Euskaldunak ez diren eremuetan atzerakada nabarmena izan da euskararen erabileraren gaitasunean eta honi buruz Hezkuntza Sailak ezer gutxi aipatu du.

Hezkuntza Publikoak aukera berdintasuna bermatu nahi badie bere ikasle guztiei, orain arte jarritako baliabide pertsonal eta materialak ez dira nahikoak ezta gutxiagorik ere. Etorkizuneko Euskal Herriko jendartean gero eta desberdintasun handiagoak izango ditugu gaur egungo hezkuntza publikoan baliabideak jartzen ez badira eta horretarako egin beharreko inbertsioa orain artekoa baino handiagoa izan beharko da.

Argi geratu zaigu Eusko Jaurlaritzari hezkuntza publikoa berdin zaiola, baina kapitalismoak martxan jarraitu dezan eskolak irekita behar dituzte, familiak lanera joateko, zaintzak bermatuta egoteko. Hezkuntza Sailari berdin zaio zein den gure ikastetxeetako hezkuntza proiektua, gure metodologia, eta azken urteetan eskolak eraldatzeko egin dugun esfortzu pertsonala edo materiala.

Azken urtea oso arraroa izan da, atzera pauso nabarmenak eman ditugu aspektu askotan, baina dena ez da negatiboa izan, gauza positiboak ere atera ditugu. Beti kexatu izan gara aldarriak egun bakarrekoak ez direla izan behar, eguneroko lana direla, baina oraingoan konfinatuta geunden bitartean egun bakarreko hainbat aldarri garrantzitsu lantzeko aukera izan genuen, horien artean Maiatzak 17a, LGTBIQ+ fobiaren aurkako eguna, familiei gure ikastetxeko baloreak adieraziz eta aukera desberdinak helaraziz: ipuinak, abestiak, filmak, etab.

Aurten ere egun bakarreko aldarriak gustura hartu ditugu, Azaroaren 25ean ekintza xumeak eginez eskoletan eta Martxoaren 8a beti bezala, indartsu eta gogotsu kalean, etxean zein eskoletan ospatuko dugu.

Pandemia honetan gauden unean eta dakigun apurrarekin irakurketa xume hau egin dugu, kontziente gara epe ertainean gure iritziak aldatuko direla; dena den eskola publikoaren alde lanean jarraituko dugu, feminismitik eta etorkizuneko jendarte inklusibo, berdintzaile, anitza eta euskalduna amesten.

Garbiketa
sektorean,
funtsezkoak
izatea aitzakia da
greba eskubideari
boikota egiteko

Garbiketa sektorean, funtsezkoak izatea aitzakia da greba eskubideari boikota egiteko

Ana Fernández Goienaga (goitizena).

Klinika laguntzaile eta gaur egun, garbitzailea.

UPV/EHUko garbiketa arloan diharduen 50 urteko langile batekin hitz egin genuen, eta aztertu genuen pandemiak zer ondorio izan dituen bere lan-baldintzetan eta egunerokotasunean. Izan litezkeen errepresalien beldur, bere datu pertsonalak ez argitaratzeko eskatu digu.

Langile honek 1991. urtean izan zuen lehenengo kontratua; klinikako laguntzaile gisa trebatu bazen ere, garbiketa sektorearen alde egin zuen, une hartan osasun arloko kontratuak oso prekarioak zirelako. Urtebeteko kontratuarekin hasi zen unibertsitatean lanean, eta kontratu mugagabe bilakatu zen berehala; hori bai, azpikontratatuta. 1991. urtean, jada, kanpoko enpresa baten esku zegoen UPV/EHUko garbiketa arloa, pribatizatuta, eta, elkarrizketatuaren ustez, hori da sektorearen arazo nagusia.

Bere esperientzian oinarrituta, Osakidetza gisako espazioak baino atsegina da unibertsitatea; izan ere, gaur egun, pandemiaren eraginez, oso eremu estresagarriak dira, baita Ertzain-etxeak ere, zeintzuetan, elkarrizketatuaren arabera, kontrako giroa baita nagusi. Hala eta guztiz ere, ikastetxeak izaten dira, oro har, lekurik onenak eta, bereziki, eskolak, langileek aldizkako lan-kontratu finkoa izaten baitute; hau da, urtean 10 hilabetez lan egiten dute, bi hilabete langabe egoten dira eta oporrak aste santuan, Gabonetan eta inauterietan banatzen dituzte.

Langile honek, garbiketa sektorea funtsezko gisa ezarri zenean, zera pentsatu zuen berehala: «Hau fardela gainera bota digutena; orain lehen lerroan lan egitea egokituko zaigu eta horrek ez du ez soldata igoerarik ez aitortzarik eragingo, ezer ez: ez dugu greba egiteko eskubiderik ere izango. Eta horrela gertatu da».

Pandemiaren egungo egoerak eragin dituen lan-baldintzei dagokienez, baieztatu du ziurtasunik eza dela nagusi gaur egun beren lanean:

«Maskarak neuk erosi behar ditut eta eskularruak ez dira mahai edo aulkietarako bereziak: pare bakarra daukagu azalera guztietarako». Baieztatu du ez dutela nahikoa babes, ezta nahikoa errefortzu ere, eta, langileak gutxi eta prestakuntza eskasa direnez, akats horiek guztiak azpikontratazioari egozten dizkio; inork ez du NBERik, enpresak ez duelako maskararik banatzen.

Protokolo orokor eta espezifiko bana dute zentro edo/eta laborategi bakoitzerako, baina neurriak oso bigunak dira. Adibidez, desinfektatzeko materiala langileek beraiek prestatzen dute: ura eta lixiba nahasten dituzte, eta komunetarako xaboa bakarrik erabiltzen dute. Pandemiaren aurretik, behin garbitzen ziren azalerak bitan garbitu behar dira martxotik, eskulekuak, igogailuetako botoiak etab. desinfektatuta. Hori bai, inolako kosturik gabe. «Horretarako balio digu ezinbesteko izateak» adierazi du, «prezio berean lan bikoitza egiteko, eta babesa geure kontu uzteko».

Bajei dagokienez, bigarren edo hirugarren egunetik aurrera betetzen dira eta, ondorioz, langileen lan-karga hirukoiztu egiten da. Honela adierazi du elkarrizketatuak: «Lan-orduak ez dira nahikoak COVID-aren kontrako protokoloetan ezarrita dauden garbiketa eta desinfekzioa egiteko». Ez da langile-taldea handitzen ari, pribatizazioaren berezko praktikak ezartzen dira: pertsona bat dedikazio osoan kontratatu beharrean, bi pertsona kontratatzen dira, bakoitza hiru ordutarako, desinfekzioaz arduratzeko, hau da, pandemiak eragin duen lan osagarria egiteko.

«Inork ez dezala pentsa fakultatearen % 100 desinfektatuta dagoenik, kontratazio prekario honek eta langile-talde txikiak ez du hainbesterako ematen».

Martxoan krisi sozio-sanitarioa neutralizatu zuen grebaz ere mintzatu ginen, zeinetan bost asteko greba aurreikusita baitzegoen UPV/EHUrako: ikasleen babesa sentitzen

dute beti, baina UPV/EHUK ez zuen greba babestu, eta sindikatuen aldetik babes nabaritzen dute, baina oso era diskretuan.

«UPV/EHUrentzat ikusezinak gara, zerbait garbitu gabe geratzen denean soilik konturatzen dira hemen gaudela, hau da, larrialdi bat dagoenean edo greba deitzen dugunean». Unibertsitateak behin baino ez zuen garbiketa arloko greba bat babestu, 1990. urtean. Greba hura historiko gisa gogoratzen dute, grebalarien portzentajea oso handia izan zelako; errektoreak aldarrikapenen aldeko adierazpena egin zuen eta horrela lortu ziren aldarrikapen gehienak. Orain ere unibertsitateko agintariek gauza bera egin beharko lukete:

«Gu garbitzera ez bagatoz, ezin da eskolarik eman, ezta inolako izapiderik egin ere, eta, ondorioz, unibertsitate-komunitatearen parte garrantzitsua gara».

Mugimendu feministak etxeko langileen zein garbiketa eta zainketa arloetako langileen presentzia ikusarazteko egindako borrokez ere mintzatu ginen. Horrekin lotuta, langile honek adierazi du nabarmena dela mugimendu feministaren babesa, garbiketa sektoreko langileek beren lan-baldintzak hobetzeko bultzada ematen baitu. Sindikatuak ere, beren aldetik, borroka garrantzitsua egiten ari dira, baina alderdi politikoak –elkarrizketatuaren aburuz– ez dira beren borroketan inplikitzen.

«Ezin da jarraitu pentsatzen piramidearen azken maila garena, zeren pandemiak agerian utzi baitu lehenengo maila garena; hori eraldatu beharra dago, aurrerantzean ere pandemia gehiago etorriko direlako. Gero eta gehiago salatu behar ditugu enpresak».

Azaldu duenez, garbiketa sektorea lan duina da, duinak ez direnak baldintzak dira: Zer neurri izango litzateke egokiena jendarte osoak hori ulertzeko?

Zera azaldu du elkarrizketatuak:

«Gu ezagutzea da gakoa eta, adibidez, horretarako unerik onena greba bat izan daiteke, jaramon egin diezaguten eta eskatzen ditugun gauzak hitzarmenean jasota daudela eta betetzen ez direla egiazta dezaten. Greba egitera iritsi izanak esan nahi du ez dela beste biderik geratzen; UPV/EHUK bitartekari izan behar du, eta, bete beharrekoak betetzen ez badira, enpresak zigortu egin behar dira».

Garbitzaileen sektorean, patriarkatuak ere osasun ona du, lan-arloko beste esfera batzuetan bezala: ez zaigu lana aitortzen, historikoki emakumeok doan garbitu izan dugulako. Gainera, kategoria handieneko lanpostuak (peoi espezialistak, arduradunak, beiragileak) gizonezkoek betetzen dituzte sistematikoki (normalean, beste sektore batzuetatik iritsitakoek). Duela hamarkada batzuk, arduradun lanpostu bat libre geratzen zenean, antzinasun handiena zuen langileari eskaintzen zitzaion; orain jardunbide egoki hori ez da betetzen, kontratak izaki, langileei mesedeak egin eta «lagun, senide, bizilagunak» jarri ahal dituztelako.

«Emakumeok beti izaten gara paganoenak; ez da biktimizatzearren, baina matxismoa nagusi da gure sektorean: aginte-postu guztiak gizonak betetzen dituzte, guztiak dituzte lanaldi osoak, eta emakumeek, ordea, hiruzpalau orduko kontratuak izaten dituzte».

Laneko osasunari dagokionez, gaixotasunik ohikoenak bizkarrezurrekoak eta lunbarretakoak izaten dira, baita esku, ukondo eta sorbaldetakoak ere. Esfortzu fisikoarekin lotura duten mota horretako gaitzez gain, azpimarragarria da zenbat estres eta depresio kasu dauden garbiketa arloko langileen artean.

«Nik uste dut baloratze ezak deprimitu egiten gaituela garbiketako langileok, arduradunak ere ez baitigu lana aitortzen; «eskerrik asko» bat ere ez dugu jasotzen. Garbiketa sektorean aitortzen den gaixotasun bakarra karpoko kanalaren sindromea da, keinu errepikakorrek eragiten dutena. Badago lan-karga izugarria izaten duenik, eta asegabe geratzen dira, jakina, ondo lan egin behar dela ulertzen dutelako. Horrelakoetan, laneko presioak deprimitu egiten du jendea; etsi eta estresatu egiten zara. Gainera, oso gogorra da ikusezin sentitzea; ez da egiten dugun lana baloratzen eta horrek egunez egun azpiak jaten dizkizu».

Garbiketa sektorean dauden borroka sindikalak eta estrategiak oso gogorrak dira, inpaktu sozialik ez dutelako eta ikusezin egin dituztelako, «ez komunikabideetan, ez administrazioan, ez enpresetan». «Dena elkar hartua balego bezala». Maniobra-marjina oso txikia da, elkarrizketatuaren arabera:

«Orain, sektore berezi batekoak garenez, gutxieneko zerbitzuak langile-taldearen % 100ekoak dira; hortaz, pandemiak larriagotu egin ditu greba egiteko ditugun zailtasunak. Eta % 30 edo % 50eko zerbitzuak ezartzen direnean, esan nahi du denbora tarte horretan egin

behar direla bai garbiketa bai desinfekzioa. Benetan, % 30ek garbituko dute UPV/EHU osoa?».

Egin beharreko galdera da zergatik ez dagoen sektore honetan apenas prestakuntza espezifikorik; izan ere, profesional honen arabera, beharrezkoa izan beharko litzateke, lehenengoz eta behin, produktuak ezagutzea eta, antolamendu-mailan, kontratazio-pleguak ezagutzea.

«Jasotzen ditugun ikastaroak oso azalekoak izaten dira; laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikastaroak egin behar ditugu, nola lan egin irakatsi behar digute, esfortzu fisiko handia baita eta, azkenean, bizkarrezurra, sorbalda kaltetzen baitugu. Orgak erabiltzea zaila da, 25 kilo ere desplazatzen ditugulako bertan».

Ikusgaitasuna, aitortza, oinarritzko zerbitzuen pribatizazioa. Hainbat galdera planteatzen ditu langile honek:

Nola da posible ia sei urte ondoren hitzarmen berria sinatu gabe egotea? Zergatik urratzen dituzte sistematikoki enpresek baldintzen pleguak? Zergatik instituzio publikoek ez dituzte garbiketa-enpresak kontrolatzen? Benetan merkeagoa al da administrazio publikoarentzat azpikontratatea?

Badugu soluzioa: garbiketa sektoreko zerbitzuak publiko egitea. Borroka gaitzen horren alde, adiskideok. Adibide bat amaitzeko: foru-aldundietako langileek (langile publikoek, alegia) 1060 m² dituzte garbitzeko, eta UPV/EHUn, ordea, 2000 m² ditugu.

Feminismoa eta
jasangarritasuna
osasunean:
COVID-19
pandemiari
arrakastaz aurre
egiteko
bide-orria

Feminismoa eta jasangarritasuna osasunean: COVID-19 pandemiari arrakastaz aurre egiteko bide-orria

Lucía Gallego Andrés.

Mikrobiologia Mediko eta Ikerketako irakaslea,
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. UPV/EHU.

2019ko abenduan alarma piztu zen mundu mailan, Wuhan hirian (Txina) pneumonia larri agerraldi bat erregistratu zelako. Gaitza azkar eta erraz transmititzen zen, eta SARS-CoV-2 izeneko birus zoonotikoa zuen jatorri. Ordutik, osasun arloko katastrofe egoeran murgildu da mundua, eta airean eduki ditu bai osasun sistema publikoak, bai munduko sistema ekonomiko eta politikoak. Ekosistemen suntsiketan eta baliabide naturalen xahuketan oinarrituta dago gure ekonomia, eta horregatik iristen dira animalia-gordailuetan isolatuta zeuden birusak gizakiak ukitzera. kontaktu horrek ondorio larriak eragin ditzake, eta halaxe gertatu da oraingoan, mundu mailako pandemia hau eragin baitu. Zentzu horretan, argi geratu da konponbide eraginkor bat bilatu behar dugula lehenbailehen, hala egin ezean ez baita azkena izango.

COVID-19 pandemiaren hasieratik, ikusi dugu emakumeen osasun arloko eskubideak alboratu egin direla eta areagotu egin direla azken hamarkadetan agerian geratu diren desberdintasunak. Badirudi inoiz ez dela une egokia, pandemia egon zein ez, gai horretan esku hartzeko eta osasun arloan genero-ikuspegia txertatzeko. Hala eta guztiz ere, krisiari aurre egiteko ezin da egungo ereduari oinarritzen jarraitu. Izan ere, egungo ereduari patroi maskulinoa ezartzen da bete beharreko arau gisa eta, ondorioz, gizonak dira nagusi erabakiak hartzen dituzten «adituen» batzordeetan. Horrek guztiak zaildu egiten du krisiari konponbide egokiak aurkitzeko aukera, eredu hori delako, hain zuzen ere, arazoaren jatorria.

Osasun arloko desberdintasunak testuinguru ezberdinetan identifikatu dira, honako hauetan bereziki:

Lehenengoz eta behin, COVID-19aren diagnostiko oker ugari egin ziren emakumeengan, izan ere, proba diagnostiko guztiak gizonezkoen sintomatologian zentratuta daude eta emakumeek, sarri, bestelako sintomak izaten dituzte, hala nola eztarriko mina, gorakoa eta beherakoa. Hori dela eta, zenbat kasu ez ote dira diagnostikatu eta, ondorioz, ez dira estatistiketan agertzen? Zenbat emakume ez dira ospitaleratu? Kontuan hartu al dira COVID-19 kasuekin harreman estua izan duten kasu komunitarioak? Kasu horietan, kontuan hartu diren zifrak baino nabarmen handiagoa da kopurua.

Bigarrenez, ikerketa zientifikoa partziala da. Agerian geratu da ebidentzia nahikorik gabe ezagutza sortzen duten ikerketa zientifikoak direla osasun arloko ezberdintasunen oinarria, esperimenduetan emeen eta entsegu klinikoetan emakumeen kopuru adierazgarririk barne hartzen ez delako. Hala egiten denean ere, emaitzak ez dira analizatzen, eta ez dira ikuspegi hori oinarri hartuta eztabaidatzen. COVID-19 garaian, arazo hori larriagotu egin da «premiaren tiraniaren» ondorioz, eta behar bezala berrikusi gabeko hainbat artikulu argitaratu dira, baita farmako eta txertoen entsegu asko bizkortu ere, zirkulazioan jartzeko beharrezkoak diren betekizunak malgutuz. Aste honetan bertan argitara atera da Valentiako erkidegoko transfusioen zentroaren gutun bat, zeinetan uko egiten baitzitaion COVID-19 gaingitu zuen emakume baten plasma-donazioari, entsegua gaixotasuna gaingitu zuten gizonengan zentratuta zegoela argudiatuta... Zein irizpideren arabera erabakitzen da ez dela beharrezkoa gaixotasunak emakumeengan duen prozesuari buruzko informazioa?

Hirugarrenez, hilkortasun- eta erikortasun-tasak ezkutatu eta ikusezin bilakatu dira, datuak sexuaren arabera berezi gabe, eta, ondorioz, ez dugu informazio baliagarri hori eskuratzerik izan. Bereizketa egin duten ikerlanetan, herrialde ezberdinetako datuak aztertuz gero, agerian geratu da sexuaren araberako nagusitasunak eta emakumeen kasuen kopuruak gora egin zutela itxialdiaren ondorengo bi astetatik aurrera. Gure herrialdean, pandemia hasi eta bi hilabetera hasi zen emakumeen infekzioen zifra handitzen, harik eta gizonei zegokiena gaingitu zuen arte, eta patroi berbera antzeman zen Europako beste herrialde

batzuetan ere. Informazio horren balioari ezikusi egiten ari zaio Osasun Ministerioa, eta horregatik eskatu dio komunitate zientifikoak datu horiek publiko egiteko, nahiz eta orain arte eskakizunetan arrakastarik izan ez. Pandemia hasi zenetik, Eusko Jaurlaritzak datuen berri ematen zuen eguneroko buletinetan, baina hori egiteari utzi zion 2020. urte bukaeran, hauteskundeen ondorioz osasun sailburua aldatu zenean.

Laugarrenez, emakumezko adituen eta argitalpen zientifikoan emakumezko egileen presentzia eskasa da komunikabideetan. Prentsan argitaratu diren datuen arabera, emakume zientzialariek argitalpenei eskaintzen dieten ordu kopuruak behera egin du (astean 6,2 ordu izatetik 1,6 izatera), eta gizonenak, ordea, gora (7 ordu izatetik 8,1 izatera). Ordu horiek arlo pertsonaleko zereginetara bideratu direla suposa dezakegu; hala, ondoriozta dezakegu gizonak are gehiago baztertu egin dituztela egiteko horiek eta egoera aprobetxatu egin dutela abantaila handitzeko, horrela desberdintasuna areagotu delarik. Garapen profesionalean argitalpenak gako direla kontuan hartuta, aurretik zegoena baino arrakala handiagoa eragiten ari da egoera hau.

Bosgarrenez, agerikoa da emakumeak daudela birusaren eragin-eremuaren lehenengo lerroan, emakumeak baitira zaintza-lanetan aritzen diren gehienak (arloan profesional zein pertsonalean), gainera, emakumeek izan dute indarkeriaren eta pobrezia eraginik handiena jasateko arriskua. Gora egin du genero indarkeriak, baita osasun zerbitzuetara iristeko zailtasunak ere; lana galtzeko arriskua handiagoa da; ordaindu gabeko zaintza-lanek gora egin dute... Eta zailtasun horien guztien ondorioak agerikoak izan dira emakumeen osasun orokor zein mentalean, baita, ondorioz, beren bizi-kalitatean ere.

Aurretik esandako guztia gutxi balitz bezala, gehiegizko informazioaren eta «*fake news*» direlakoan fenomeno erantsi behar dugu. Izan ere, sare sozialen eta komunikabideen bidez, uste baino azkarrago zabaldu da informazio mordoa, sarritan kontrastatu gabe eta ebidentzia nahikorik gabe, eta informazio horrek komunitate mediko eta zientifiko ere eraman du berekin. Aldizkari zientifikoek eta webguneez, «informatzea» helburu, bizkortu egin dute argitaratze-prozesua eta era masiboan argitaratu dituzte atariko emaitzak, beste egoera batean behar besteko kalitate-kontrolaren iragazkia gaindituko ez luketenak. Nature aldizkariak ohartarazi duenez, aipuen artean antzeman egin dira azkenean argitalpenetatik ezabatu diren hainbat artikulua. Hala, baieztapen kontraesankorrak topatzen ditugu nonahi,

zeintzuetan, sarri, ukatu edo nahasi egiten baitira ebidentzia zientifikoak, batez ere sexuak eta generoak pandemian izan ditzakeen ondorioei buruzkoak. Izan ere, minimizatu egiten da gaitzak emakumeengan duen efektua, emakumeok infekzioei hobeto aurre egiten diegula argudiatuta. Horren ondorioz, bigarren mailako izatera igarotzen gara, ez baita emakumeen presentzia behar beste kontuan hartzen prebentzio neurriak diseinatzeko eta metodo diagnostiko zein tratamendu egokiak garatzeko orduan. Birusak emakumeak «errespetatu» egiten dituen sentsazioa ere transmititzen da, haren ondorio hondatzaileak ukatuz lehendabizi, eta, baieztapen hori babesteko, kontrako ebidentziak desitxuratuz ondoren.

Genero ikuspegia txertatuta egin diren azterketa zientifikoek honako hau erakutsi dute:

1. COVID-19ak gizonengan eragin dituen heriotzak azpiko arrisku-faktoreei lotuta egon dira gehienetan, hala nola hipertentsioari, gaixotasun kardiobaskularrei, biriketako gaitzei, gizentasunari, tabakismoari eta alkoholaren gehiegizko kontsumoari lotuta. Ospitaleratutako kasuetan, eta ZIUn daudenetan, emakume baino gizon gehiago dago, nahiz eta zifrak aldatu egiten diren herrialdearen arabera; baina esperotako gehiegizko hilkortasunak eta haren arrastoek handiagoak izaten jarraitzen dute emakumeen artean gizonen artean baino. Izan ere, aurretik ere adierazi dugunez, emakumeen kasu asko ez dira diagnostikatu ere egin eta ez dira estatistiketan agertu. Beraz, zenbat emakume ez dira ospitaleratu? Zenbat heriotza ez dira kontabilizatu?
2. Erraz onartu egiten da, oro har, gure sistema immunologikoak babestu egiten gaituela eta, horretarako, erantzun sendoagoak martxan jartzen dituela. Hala eta guztiz ere, desabantaila ere ekar lezake horrek, gehiegizko erantzunek neurri handiagoan eragin baititzakete gaixotasun autoimmuneak, gehiegizko hanturazko erreakzioak izateko joera eta genero-ikuspegirik gabe pentsatu eta garatu diren terapia immunologiko zein txertoen kontrako erreakzioak. Hanturazko fenomenoak, berez, ohikoagoak dira emakume helduengan, baina baita gizon nerabe eta zaharengan ere. Hain zuzen ere, estrogenoen efektu «positiboa» ere eztabaidagarria da, B zelulek antigorputzen ekoizpena areagotzen duten arren, NK zelulek zitotoxikotasuna gutxitzen baitute. Argi dago sexu biologikoak ezberdintasun argia inprimatzen duela erantzunetan; baina ez dago

ebidentzia egiaztaturik, emakumeok abantaila biologikoa dugula pentsaraztea justifikatzen duenik. Horretaz gain, gaineratu behar da hantura dela sexuaren arabera bereizitako ikerketa gutxien duen alderdia, nahiz eta gakoa den SARS-CoV-2 birusaren aurrean eman beharreko erantzunetan.

3. Aztertutako bibliografiak agerian utzi du proba diagnostikoak eta tratamenduak diseinatzeko orduan ez direla kontuan hartzen ari sexu/ generoaren araberrako ezberdintasunak. Arazo hori zabaldu egiten da txertoen garapenera ere, non jarraitzen baitute entsegu klinikoetan eme eta emakume nahikorik barne hartu gabe. Ondorioz, zaila da erantzunari, albo-ondorioei, dosien egokitzapenari eta epe luzeko ondorioei buruzko informazio zientifiko egiazkoa edukitzea eta, hortaz, zaildu egiten da gaitzak emakumeen osasunean izan ditzakeen ondorio larriak saihesteko bidea.
4. Infekzio birikoak, hala nola GIB, Gripea, Ebola, Zika, etab. ohikoagoak dira emakumeengan gizonengan baino, eta eboluzio okerragoa dute. Hori dela eta, ezin da esan birusek emakumeak «errespetatu» egiten dituztenik, ezta ondorio larriak minimizatzen saiatu ere.

Laburbilduz, argi dago feminismoa eta jasangarritasuna pandemiaren lanketan premiaz txertatu beharreko faktoreak direla, horrela soilik lortuko baita desberdintasunak zuzenduko dituzten soluzioak ezartzea eta, hala, osasun arloko krisi honetatik irteteko bide eraginkor, jasangarri eta bidezkoagoa topatzea. Eta hauxe da momentua, ez besterik... Bizitza dago jokoan.

Pandemiak
genero arrakala
eta zaintza
lan ikusezina
areagotu
zituenekoa

Pandemiak genero arrakala eta zaintza lan ikusezina areagotu zituenekoa

Nahia Idoiaga Mondragon.

Bilboko Hezkuntza Fakultateko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saileko irakaslea da. UPV/EHU.

Orain gutxi irakurritako artikuluko batek zioen maila akademikoan lehen egile femeninoarekin onartutako artikuluen proportzioak behera egin duela konfinamendu-aldietan. Zehazki, 60.000 aldizkariko azterketak erakutsi zuen 7 puntu jaitsi zela maiatzean egile emakumezkoen proportzio hau gizonekin alderatuz, azken lau urteetan emakumezkoen publikazioen proportzioak gora egin zuenean (Frederickson, 2020). Hau da, gizonezkoek proportzionalki gehiago jarraitu ahal izan dute beraien iker jardunetan emakumezkoek baino. Horren arrazoia, edo arrazoi nagusietako bat behintzat, garbia da nire ustez, konfinamenduan emakumeok gure gain hartu behar izan dugun zaintzaren zama (adingabekoena, zaharrena, mendeko pertsonena etab.).

Zainketen banaketan arrakala handia zegoela susmaturik guk geuk Euskal Herriko 1.000 familia ingururi galdetu genien konfinamenduan zehar umeen zaintza nola kudeatzen ari ziren. Haurren zaintzaren karga hori emakume edo gizonezkoen menpe geratzen ari zen aztertu nahi genuen. Familia mota anitzek parte hartu zuten arren, zaintza hori emakumeen (amaren, amen, tutore emakumearen etab.) edo gizonezkoen (aitaren, aiten, tutore gizonezkoaren, etab.) esku zegoen zen aztertu nahi genuena. Emaitzak argiak izan ziren, parte-hartzaileen %40,1ek adierazi zuen etxeko haurren zaintzaz soilik ama arduratzen zela, soilik aita arduratzen zela %4,7k esan zuten bitartean. Halaber, konfinamendu egoeran familian norbaitek bere lan egoera aldatu zuen galdetzean (murrizketa bidez, telelan eskaera bidez, eszedentzia bidez, etab.) %32,1ek esan zuen emakumezkoak soilik eskatu zuela bere lan egoera aldatzeko eta %11,3k gizonezkoek soilik eskatu zutela.

Halere, egia da, gutako askok lanean jarraitu genuela, maila guztietako irakasle anitzen sentsazioa inoiz baino lan gehiago egin izana delarik, ordutegirik gabe, lanegun eta jai egun banaketarik gabe eta batez ere pantailako beste aldean zeuden horiengana behar bezala, kalitatezko hezkuntza bermatuz, heltzen ari ginen edo ez lar argi izan gabe. Edukien transmisioa, lanak bidaltzea, online klaseak antolatzea etab. funtsezkoa zela esan ziguten, baina gure hezkuntza antzu geratu zen gure ikasleak zaintzeko baliabiderik gabe geundelako. Pandemiaren hasierako hilabete luze haietan hezkuntza eragileok ez genuen lortu zurgarrienen bizitzak erdigunean jarriaz zainduz kalitatezko hezkuntza bermatzea. Gure babes gabe geratu ziren bortxa eta bazterketa jasaten ari ziren hainbat eta hainbat ikasle, eta baita pandemia egoeraren aurrean gainezka eginda animikoki babesgabe sentitu ziren beste hainbat ere.

Baina zaintzarekin kontraesan edota arazoak ez genituen maila profesionalean soilik jasan, etxean ere puri-puriko gaia izan genuen. Lanean %100ean (edo %20 0ean sarri) jarraitu behar horretan etxekoen zaintzarako espazioa non zegoen? Nola uztartu lana, zaintza eta kasu askotan gure etxekoen hezitzaile ere bihurtu izana? Ez dut uste umeari titia ematen bilera birtualak izan dituen bakarra izan naizenik, inoiz web-kamara aurpegi parean jarrita edo kenduta klaseak ere umea zintzilik nuela eman ditudalarik; ez dut uste ezta nire alaba alboan bere etxeko lanak egiten nuen bitartean, lan birtual horretan jardun duen bakarra izan naizenik; ezta momentu batean umei telebista jarri behar izan dien bakarra ditzosozko telelana burutu ahal izateko.

Eta kontziente naiz noski, ni pribilegiotik hizketan ari naizela, lan eta soldata duinak ziurtatuta dituen emakume nazional eta zuriaren pribilegiotik. Zaindu edo jatearen artean aukeratu behar izan duten hainbat eta hainbat ere badaude gure bizilagunen artean. Orain gutxi pediatra batek kontatzen zidan ama batek bere semea ez konfinatzeko erregutzen ziola, lanera agertu ezean bota egingo zutelako, eta bizi-irauteko lan horretako diru sarrera behar beharrezko zutelako. Hau da, zaintzeko eskatu digute, zaintza berezkoa automatikoa edota botoi bati emanda burutu ahalko balitz bezala. Baina ez zaintzea, ez hezteaz ez da berezko kontua, urte luzez ikusezin izan arren. Zaintzak eta hezkuntzak denborak, espazioak eta konpromisoak behar dituzte.

Sarri gogoratu dut hilabete hauetan 2020ko Martxoak zortziko protesten harira Euskal Herriko Bilgune Feministak burututako irakurketa. Orain hain urrun ikusten ditugun pandemia aurreko egun haietan hala zioten: «Gurean ere feminismoaz hitz

egingo digute, nahiz eta euskal lurraldeetako gobernuek Mugimendu Feminista entzun ez eta zaintzaren ardura politikoa hartu ez. Hitz hutsalak baino ez dira konpromiso zehatz eta integralak hartzen, eta horiek diruz hornitzen eta ebaluatzeko irizpideak ezartzen ez diren bitartean. Izan ere, ez doaz errora. Zer dago, orduan, erroan? Erroan, astean zaintza lanei 20 ordu gehiago eskaini eta, batz bestea, %30 gutxiago kobratzen dugun emakumeak* gaude, denboran pobreagoak garenak. Erroan, soldata arrakala eta zaintza lan ikusezina dago»
(http://bilgunefeminista.eus/eu/Berriak/20200308/Errotik_dena_aldatzeko_ari_gara).

Eta hala izan da, zaintzaz hitz egin digute, elkar zaintzeko eskatu, norbere burua zaintzeko, gure txikiak zaintzeko, gure nagusiak zaintzeko, baina non egon dira zaintzen aldeko politikak? Zaintzari ez zaio inoiz duen garrantzia aitortu, eta hau argi ikusi dugu, inoiz baino gordinago, pandemia garaian. Zaintzarako espaziorik ez dugu izan, ez da egon eta ez dago babes politikorik zaintzarekiko, ezta baliabiderik behar beharrezko genituen zaintza lan horiek ahalbidetzeko. Honenbestez, baliabide ezen aurrean hainbat eta hainbat emakumek karga sozial hori gure gain hartu behar izan dugu, ezinean jardunaz.

Beraz, buelta gaitzen gu geu ere errora, borroka dezagun zaintzak erdigunean jartzeko. Borroka dezagun irakasleok burutzen dugun zaintza kolektiboko lana baloratua izan dadin eta edozein unetan behar gaituzten talde zaugarri horiek gure babesa izan dezaten. Borroka dezagun zaintza uneak politikoki aitortuak izan daitezen eta berauek ekonomikoki eta sozialki babestuko dituzten politika aktiboak behingoz lor daitezen! Erronka ez da makala, baina pandemia honek zerbait erakutsi baldin badigu bizitza erdigunean jartzeak duen garrantzia izan da.

Chernobyl,
munduaren
amaiera eta
eskola

Chernobyl, munduaren amaiera eta eskola

Josebe Iturrioz López.

Filosofian Lizentziaduna; gaur egun,
bigarren hezkuntzako irakaslea da.

Chernobyl telesailaren lehenengo eszenetan ondo azaltzen da zer den ebidentziaren ukazioa. Zentralaren errektoreak eztanda egin ondoren, ingeniari batek, boterea duen gizon batek, gizon gazteei eskatzen die eztanda erdigunera joan daitezen zer gertatu den begiratzera; ez dakit zenbat aldiz bidaltzen dituen langile gazteak erradiazioaren muinera, onartu nahi ez duen egia bat begiratzera. Egia horrek –alegia, erradiazioak– langileak akabatzen ditu. Porrota onartu beharrean, zentralaren errektoreak eztanda egin duela onartu beharrean, banan-banan bidaltzen ditu langileak heriotzara, suizidio erradiaktibora. Horregatik, Chernobyl efektua deitu diot gure gizartearen erdigunean txertatzen den gaitz honi: ebidentzia ukatzeko joera.

Konfinamenduaren lehenengo egunetan zorrotz erreparatu nien politikarien diskurtsoei, orokorrean eskuragarri genuen informazio guztiari; ez nuen egia asko aurkitu. Horrek ez du esan nahi telebistan entzun ditugun aditu guztiak gezurrak esan dituztenik, baizik eta egia argitzeko behar ziren baldintza guztiak ez direla eman. Pandemia honen izaera ulertzeko hausnarketa sakon bat behar genuen, bere izaera eta gure izaera ulertzeko. Bereziki, hausnarketa sakona behar dugu aurrera egiteko.

Jakintzaren krisian murgilduta bizi gara, dagoeneko ez ditugu ebidentziak errespetatzen. Aristotelek honela definitu zuen egia: esaldi batean esaten denaren

eta errealtatearen artean dagoen egokitzapena da, hau da, esaten denak errealtatera gerturatu behar du, eta horrekin bat egin. Garrantzitsuena zera da: esaldi bati edo esaldi multzo bati ematen zaion balioa da egia; balioa. Horra gure hurrengo gatazka, balioen krisia, balio judu-kristau, ipurtzuri eta neoliberalen krisia, errealtatearekiko gerturapena eta egokitzapena saihesten duena. Gaur ez da egia esan nahi, gezurrak esatea errazagoa da, azkarrago zabaltzen dira eta arrakasta handiagoa dakarte. Egiara gerturatzeko gutxienez ikuspuntu ezberdinen eta jakintza esparru anitzen arteko eztabaida behar da, ez une batean ematen den eztabaida bat, baizik eta krisiaren erdian ezartzen den eztabaida luzea eta sakona. Horrela konturatuko gara egia jakin nahi izatea erabaki moral eta etikoa dela. Hau da, egia ez da momentu batean aurkitzen den zerbait; aitzitik, etengabean bilatu behar den zerbait da. Eta, zein da egia? Gutxienez, gizakiak ez duela errealtatea ulertu nahi, ez du gerturatze bat bilatzen, ezta ere egokitzapenik. Normalitatea nahi dugu, gauzen merkatuan bizi, ez bizitzaren zaintzan.

Konfinamendutik hona, gure gizartea militarizatu egin da, gerraren metaforek gure egunerokotasuna hartu dute: salbokonduktuekin mugitzen gara, etxeratze-ordua daukagu, herriak eremu gorrietan sailkatzen dira, gure onerako erreprimitzen gaituzte. Gure arteko zainketa aktibatu da: bizilagun gutxi, espia gehiegi. Bitartean, begien aurrean dugun ebidentzia ukatzen dugu: bizitzaren eta kapitalismoaren arteko azkeneko talkaren aurrean egon gaitzke. Mundua bera agortzen ari da, ez dago ekosistemarik gizakia jasan dezakeenik. Hori baitzen kapitalismoa: gorputzaren, lurraren eta bide batez, bizitzaren ez-jabetze, lapurreta eta ustiatze hutsa.

Aurrera ateratze nahi horretan murgilduta bizi gara, gauzak lehen bezala izango direla esaten diogu gure buruari, amaiera jarri nahi diogu konfinamendu selektibo eta amaigabe honi. Bitartean kapitalismoaren logika elikatzen jarraitzen dugu: lanera joan, lana izanez gero; etxera bueltatu; erosketak egin; antsiolitikoak edo antidepressiboak hartu, eta segi aurrera. Ekonomia mantendu behar da, aurrera egin behar dugu. Akritikoki jan ditugu pandemiaren diskurtso hegemonikoak. Amesgaizto hau lehenbailehen pasatzeko errezatzen dugun bitartean, salbazioa farmazeutiken eskuetan utzi dugu, denak gure txertoaren zain. Baina ez, ez jainkoak, ezta ere farmazeutikek, ez gaituzte salbatuko. Kapitala eta bere logika patriarkala mantentzea salbazioaren kontrakoa baita. Pandemiarekin beste gai batzuekin erabili ditugun eztabaidarako tresnak berrerabili ditugu, berriro ere polarizazioaren erdigunean. Hegemoniak esaten duenarekin kritikoa bazara negazionista hutsa zara, pandemiaren terraplanista. Askotan teorikoki kritikoa izan gaitzke, baina gero giza praktikei begiratzen diegunean segituan kondenatuko ditugu taldean elkartzen

diren gazte horiek, ondo irudituko zaigu hezkuntzan txertatutako protokoloak, eta beharrezkotzat joko dugu sistema diziplinarioa estutzea, eta horrekin batera etorritako jazarpen guztiak. Zelatariaren zainketa gailentzen da. Feminismoak urteak daramatza zaintza erdigunean jarri behar dela esanez eta azken hamarkadetan egon den osasun krisi gordinenean zelatariaren zainketak irabazi du.

Zenbatetan entzun dugu hezkuntza beharrezkoa dela gizartea aldatzeko? Tamalez, egungo hezkuntzak gizarte honek behar dituen automatik programatzen ditu. Martxoan konfinatu gintuztenean, eta denborak aurrera egiten zuen bitartean, argi gelditu zitzaigun hezkuntza zutarri ekonomiko bat dela, umeek zentroetan egon behar dutela, zainduta, gurasoek eta tutoreek eguneroko lanari aurre egiteko. Orain zentroetan sartu ditugu, eskoletan, arauz eta debekuz jositako eskola batean. Edukiak ez dira aldatu, helburuak ez dira aldatu, programatu behar ditugu, maila bakoitzari dagokion jakintza-multzoa irentsi behar dute. Patioetan zelaturik, beste mailako ikasleekin ezin nahastu, jolas guztiak murriztuta, kaleko orduak mugaturik. Helduen gorpil zoroa errepikatu behar dute: etxetik eskolara, eskolatik etxera, etxekolanak egin, konfinatua izan, jarraitu lanean etxean, gainditu azterketak, alboratu zure bizitza.

Gutxitan eteten da egitaraua indarkeria estrukturala zer den azaltzeko. Ez diegu botere-harremani buruz hitz egiten. Ikasleek beren baldintza materialak ulertzeko aukera gutxi dituzte. Ez naiz irakasleongan ardura gutzia ipintzen ari, engranajearen beste zati bat gara, aukera gutxi ditugu.

Mutilen arteko indarkeria zuzena ikaragarri igo da; nesken artean, aldiz, anorexia eta bulimia zabaldu dira. Askorentzat, etxea eta eskola jasangaitzak suertatzen diren presondegiak dira. Gustuko dugu familia gatazkarik gabe gune gisa irudikatzea, berriro ere errealtatetik ihesi, hartatik aldentuz. Etxea ez da segurua denontzat, indarkeria anitzen iturria izan daiteke: tratu txarrak, bortxaketak, abusuak... Eskola ez dago prestatua indarkeria guzti horiek antzemateko, eta lortzen badu, kasu larriak aurkitzen baditu, aukera gutxi ditu gatazka kudeatzeko: bide psikiatrikoa edo gizarte zerbitzuen atea. Gure erakundeek biktimak sortzen dituzte, arazoak dituzten gizabanakoak isolatzen dituzte, bakardadean sufritu behar ditugu gizartearen indarkeria guztiak. Ezin ditugu arazoak modu kolektiboan kudeatu. Ezin ditugu arazo horiek ondo izendatu: kapitalismoa, heteropatriarkatua, moral judu-kristaua, militarizazioa. Adibidez, badira, pandemia garaietan hezkuntza publikoa indartu beharrean, herriaren eta gure nortasunaren izenean ikastola

pribatuak defendatzen dituztenak. Ez dute nahi beren umeek indarkeria estruktural guzti honekin hartu-emanik izaterik. Diruak eta segregazioak beren ume, zuri eta euskaldunak babesten ditu, ez dute besteen kakan nahastu beharrik.

Maskara ondo jarrita eramaten ez dutenak salatzen ditugun bitartean, ez ditugu ikusten bizitza eta horren baliabideak erailtzen dituzten esku kapitalista eta patriarkalak. Urte asko daramagu hainbat mugimenduk, tartean feminismoak, zibilizazio-krisi bat datorrela esanez; bitartean gure gizarteek jarraitzen dute normalitatearen antzerkia antzezten, ezin da normalitatearen performance hau askoz gehiago luzatu. Aldaketak erradikalak behar dira. Ez dago astirik lasaitzeko eta garai hobeagoen zain geratzeko: ez dira iritsiko. Eszenatoki distopiko honek ez digu etorkizun oparorik ekarriko. Valerie Solanas datorkit burura, bere SCUM-aren hasiera, barkaidazue moldaketa: Gizarte honetan, emakume feminista arduratsuei eta beste gorputz intsumisoei aukera gutxi gelditzen zaizkigu: sistema patriarkala eten, kapitalismoaren kontra sutsu borrokatu eta benetan zaintza erdigunean jartzea.

COVID krisiaz
hausnartzen
Ekonomia
Feministatik

COVID krisiaz hausnartzen Ekonomia Feministatik

Mertxe Larrañaga Sarriegi.

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko irakaslea da Ekonomia Aplikatua I sailean.

Pandemiari lotutako krisia, XXI. mendeko bigarren krisi ekonomiko erraldoia da. Lehena, Atzeraldi Handia, krisi finantzario gisa hasi zen eta ondorioen artean bi nabarmendu daitezke: murrizketak zerbitzu publikoetan eta desberdintasun sozioekonomikoen igoera. 2007an hasitako krisia nazioartera zabaldu zen eta oso larria izan arren, ez zuen eredu ekonomikoaren aldaketarik ekarri. Berriz, gaurko krisi ekonomikoa ezusteko osasun arazoak sortutakoa da, aurrekoaren ondorioak konpondu baino lehen lehertu zen eta hau bai benetan globala dela.

Jakina da, egun, lan-merkatua sexuaren arabera bereizita dagoela: enplegu askotan emakume eta gizonen partehartzea nahiko orekatua bada ere, oraindik hainbat enplegu maskulinizatuta daude (batez ere industrialak, eraikuntza eta garraioak) eta beste batzuk oso feminizatuta (adibidez etxeko langileena, osasuna eta hezkuntza). Orokorrean, krisien azterketa generoaren ikuspuntutik burutzen denean, ikusten da merkatuan lanaren zatiketa sexuala dagoen bitartean, ondorioak diferenteak izaten direla. Krisi ekonomikoak, enplegu krisi bilakatzen direnez, analisi gehienak gizon eta emakumeen enpleguan izaten duten eraginez arduratzen dira eta garrantzi handia ematen diote langabeziaren eboluzioari.

Azkenaldian argitaratzen ari diren txostenek eta artikuluek ildo bera jarraitzen dute. Honela, askok azpimarratzen dute emakumezkoen enplegu galera gizona baino handiagoa dela eta beraz aurreko *crack* finantzarioa *mancessiona* izan bazen hasiera baten, oraingoan *shecessiona* (*she+recession*) dela. Dena dela, horrelako baieztapenak

ezin dira orokortu, lurraldeen arteko aldeak handiak baitira. Adibidez, Eustaten arabera, Euskal AEn gizon eta emakumeen langabeziak gora egin badu ere gizonena gehiago hazi da: 2019 amaieran, gizonen langabezia %8,8koa eta emakumezkoena %10,3koa zen (arrakala 1,5), eta urtebete beranduago datuak %11,5 eta %10,8 ziren, hurrenez hurren (arrakala -0,7).

Gure asmoa ez da analisi kuantitatiboa egitea, alde batetik oso epe motzekoa izan beharko lukeelako. Bestaldetik, krisi guztiek bere ezaugarri propioak izaten dituzte, baina oraingoa oso berezia eta aproposa da baita ekonomia feminista oinarritzat hartuta, hainbat hausnarketa orokor egiteko.

Ikuspuntu teorikotik, pandemia honek Ekonomia Feministaren (EF) planteamendu askoren aitortza ekarri duela esan daiteke. Hausnarketa teorikoen artean, aspalditik azpimarratu da erdigunetik merkatuak eta irabaziak kendu eta bizitza jarri behar dela. Pandemia honek, agerian utzi du, oso modu dramatikoan, bizitza erdigunean jartzeko behar hori; izan ere, bizitzarik gabe ez dago ez hazkunderik, ez etekinik, ez ezer. Eta nabarmendu da baita bizitzaren hauskortasuna, bizitza zaindu eta ekonomiaren lehentasunak aldatu beharra dagoela.

Horretaz guztiaz jabetzea positiboa bada ere, galdetu daiteke noren eta zer nolako bizimoduaz ari garen. Tamalez, argi geratu da bizitza guztiek ez dutela berdin balio: produktuak erosterakoan aldeak daude herri garatu eta garabidekoen artean, pertsonak tratatzeko orduan adina faktore diskriminatzaile bihurtu da eta klase soziala, ohi bezala, guztiz erabakigarria izan da, adibidez pandemiaren ondorioak jasateko orduan.

Bestalde, bizimoduari dagokionez, helburua bizitza duina eta kalitatezkoa lortzea da. Gu eta gure ondorengoak ondo bizi gaitezen, ondo zainduta egon beharko dugu eta natura ere zaindu egin beharko da. Beraz, bizitza erdigunean jartzeak, zaintzak zentroan jartzea eskatzen du. Eta pertsonen zaintzarako garrantzitsuak dira bai ordainsaririk gabeko lanak eta baita ordaindutakoak ere.

Krisi honek, ordaindu gabeko lanen garrantziaz ohartzeko aukera eman du. Historikoki, emakumeek izan dute lan hauen ardura, eta hori, desberdintasun sozioekonomiko askoren oinarrian dago. Hamarkada batzuez geroztik lanaren zatiketa sexual klasikoa (gizonezkoak merkatuan «ogia irabazten» eta emakumeak «etxean, zaintzen»), ez da nagusia, baina hala eta guztiz ere, etxearen eta etzekoen

ardurak emakumezkoena izaten jarraitzen du. EFk lan handia egin du ordainsaririk gabeko lanak ikusarazteko eta aitortzeko, betiere ahaztu gabe aitopenaren eta ikusgarritasunaren azken helburua banaketa bidezkoagoa dela.

Urteak dira etxeko lanetan emandako denbora pixkanaka murrizten ari dela, besteak beste, aurrerakuntza teknologikoei esker. Pandemia krisiak erakutsi du kontrakoa ere posible dela: 2020ko udaberriko konfinamenduan, etxeko eta zaintza lanen zama handitu egin zen, batez ere eskolak eta adinekoentzako eguneko zentroak itxi ostean. Ez dakigu etxeko zama handitzen denean, lan gehigarri hori nork hartzen duen bere gain, dakiguna da esparru honetan, genero desberdintasunak jaisten ari badira ere, oraindik oso garrantzitsuak direla. Honela Euskal AEn, 2018an, emakumezkoek, egunero, gizonezkoek baino ordubete eta 49 minutu gehiago egiten dute lan ordaindugabeko etxeko eta zaintza lanetan.

Giza zaintzaren zikloak etxeetan eta emakumeen lan ez-ordaindun oinarritu dira batez ere, baina ez dugu ahaztu behar etxean ez ezik, etxetik kanpo ere zaintzen dela eta zaintza horietan esku hartzen dutela sektore publikoak, enpresek nahiz ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek. Lanaren Nazioarteko Erakundeak zaintza enplegetan sartzen ditu osasun sektorekoak, hezkuntzakoak, gizarte langileak eta etxeko langileak. Sektore hauek, guztiak, oso feminizatuak dira, ezinbestekoak jendearen ongizatea bermatzeko eta baita sistemaren funtzionamendurako ere.

Pertsonak baliozko jotzen duten bizitza izateko, merezi duen bizitza izateko, funtsezkoa da nor bere bizitza antolatzeke gai izatea eta horretarako beharrezkoa da bizitza luze eta osasungarria bizitzeko gauza izatea, kalitatezko hezkuntza jasotzeko gai izatea eta bizi-maila duina lortzeko baliabideak eskuratzeko kapaz izatea. Noski, bizitza luze eta osasuntsua bizitzeko eta kalitatezko hezkuntza jasotzeko, osasun sektorea eta hezkuntza sektorea guztiz beharrezkoak dira. Hau horrela izanda, oso arriskutsua da irabazien logika hutsarekin lan egiten duten enpresa pribatuen eskutan lagatzea, baina tamalez, azken urteetako murrizketek norabide horri jarraitu diote.

Bizi-maila duinerako baliabideak eskuratzeko bide nagusia enplegua da. Beraz, bizitza ona izateko inportantea da lan-baldintza eta soldata duinak bermatzea. Konfinamendu garaian begi-bistakoa izan da prekaritatea eta zaugarritasuna oso handiak direla: bi hilabeteko soldata faltak, pertsona asko eta asko pobrezia bultzatu ditu. Oxfam Intermonen arabera, estatu mailan, COVID-19ak eraginda,

pobreen kopuruak milioi bat egin du gora (pobrezia larria %9,2tik %10,9ra igo da eta erlatiboa %20,7tik %22,9ra).

Prekariatatea ez da XXI. mendean sortu, baina aurreko krisi finantzariorekin areagotu egin zen. Orokorrean krisiek langile prekarioak kaltetzen dituzte gehien, adibidez kontraturik gabekoak eta aldi baterako eta lanaldi partzialeko langileak. Pentsa daiteke oraingoan ere antzekoa dela eta horrela bada kaltetuenen artean, asko emakumezkoak izango dira, hauen prekariatatea handia da eta.

Enpleguaren arloan, pandemiak abian zeuden hainbat prozesu bizkortu ditu, adibidez telelana. Telelanak ekarriko dituen ondorioak ikusteko goizegi da baina ezin da ukatu hainbat erronka planteatzen dituela, besteak beste, arauen esparruan eta kontziliazioan. Ondorio batzuk nabarmen positiboak izango dira, adibidez, joan-etorriak murriztuko dira eta beraz, beste jarduera batzuetarako denbora gehiago izango dugu eta ingurumenak ere eskertuko du.

Kontziliazioari dagokionez, aspalditik ikusi ohi da alde batetik familia bizitza eta lan-bizitza uztartzeko neurrien beharra, eta bestaldetik uztartze hori, praktikan, bakarrik emakumeen kontua dela. Telelanak erantzukidetasuna bultza dezake, baina gertatuko dena ezezaguna da. Gainera, ez dakigu ezta zer arazo sortuko dituen etxeko eta merkatuko lanak espazio fisiko berean egiteak.

Ikuspegi praktikotik, Ekonomia Feministak gizarte eta ekonomia justu eta jasangarria bilatu nahi du, hau da, eredu aldaketa du helburu. Alde horretatik, ez da batere errealista pentsatzea COVID krisiak eredu ekonomikoa goitik behera aldatuko duela. Aldaketa sakonak sartzeko aukerak zabaldu baditu ere, oso posible da oraingoan ere, asmoak bertan behera gelditzea. Are gehiago, norabide txarreko neurriak ez dira baztertzeko. Atzeraldi Handian bezala, orain ere zorpetze prozesu sakona ematen ari da. Egia da oraingoan, kudeaketa, Europan behintzat, diferentea izan dela baina esperientziak erakusten du, lehenago edo geroago, zorpetzearen atzetik murrizketak etortzen direla, eta ohikoena da murrizketa horiek sektore publikoak eskumena duen arloetan kontzentratzea.

Norabide oneko neurrien artean, desberdintasunak murrizteko hartutakoak daude. Onena, errenta desberdintasunak jatorrian murriztea da, baina hori gertatu ezean, politika birbanatzaileak bultzatzea komeni da, hau da, neurri fiskal aurrerakoiak. Zerga-sistema benetan progresiboa ezartzen bada, emakume gehienek alde egingo

da, emakumezkoak ez baitaude kolektibo aberatsenen artean. Beraz, justizia fiskalak genero-berdintasuna bultzatzen du.

Eredu aldaketa bilatu nahi bada, mugarik gabeko hazkuntzaren ideia alde batera utzi beharko da eta horretarako Barne Produktu Gordina ekonomiaren neurri eta helburu gisa baztertu beharra dago. Aldaketa hauek gauzatzeko asmotan, Kate Rawthorn ikertzaileak Erroskilaren ekonomia proposatu zuen. Donut ekonomia honen arabera, herriak «gune justu eta sostengarrian» mantendu behar dira eta gune justua oinarri sozial (baruko zirkulua) eta sabai ekologikoaren (kanpoko zirkulua) artean kokatuko litzateke. Jarduera ekonomikoaren bidez pertsona guztien beharrak aseko dira baina ingurumen mugak gainditu gabe. Beharren artean honakoak bereizten dira: materialak (ura, energia, elikagaiak eta etxebizitza), funtsezkoak (hezkuntza eta osasuna) eta sozialak (bakea, justizia, gizarte-ekitatea, parte-hartze politikoa eta genero-berdintasuna). Eta genero-berdintasunaren bidean, besteak beste, zaintzak (ordaindutakoak eta ordainsaririk gabekoak), benetako helburu politiko eta ekonomikoen artean sartzeko garaia da.

Pandemia
garaietan
ikusezin

Pandemia garaietan ikusezin

Marta Macho Stadler.

Geometria eta Topologia irakaslea da UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean.

«Birusek ez dute klase sozialez ulertzen». Behin eta berriro errepikatzen zen esaldi hori pandemia hasi zenean, 2020. urte hasieran. Teorian, pertsona guztiak zeuden, berdin-berdin, agente infekzioso horren eraginpean. Bai, teorian. Asteak igaro ahala, ordea, pertzepzio hori aldatuz joan zen.

Ez da gauza bera logelak eta bestelako espazio indibidualak dituen etxe batean bizitzea, edo gela batean bizi eta beste pertsona batzuekin sukalde zein komunak partekatu behar izatea. Ez da gauza bera telelanean aritzeko aukera izatea edo ez edukitzea, baliabide faltagatik edo jardueraren ezaugarriek ahalbidetzen ez dutelako. Ez da gauza bera lanera norbere ibilgailuan joatea, edo garraio publikoan hara eta hona ibiltzea... Eta hori lana baldin baduzu, jakina. Lanik ez baduzu, beharbada ez duzu ondo elikatzeke aukerarik izango, edo ez duzu zeure ardurapean dituzun pertsonen elikagai osasungarriak emateko aukerarik izango, eta, ondorioz, pertsona horien sistema immunologikoa agian ez da birusa saihesteko gai izango.

Eta, jakina, ez da gauza bera pandemia garaian gizona edo emakumea izatea. Itxialdiak irauin zuen asteetan, emakumeek hartu zuten beren gain erantzukizunen karga, eta atsedeen-orduak lanak amaitzeko erabili behar izan zituzten sarritan. Emakumeak izan dira osasun zentroetan gaixoak artatzen aritu diren gehienak, eta, horregatik, tentsio fisiko zein emozional handiena jasan dutenak.

Zientziak inoiz baino presentzia handiagoa izan du bai komunikabideetan bai elkarrizketa informaletan. Eta hala izan da, txertoak direlako kutsatzea eteteko eta SARS-CoV-2 birusak eragindakako heriotzak saihesteko bide bakarra. Hilabete hauetan zehar, epidemiologian adituak diren pertsonen mezuak entzun izan ditugu nonahi, eta azaldu digute zer egin behar dugun gaixotasuna zabal dadin saihesteko. Baina batzuetan kontraesankorrak iruditu zaizkigu azalpen horiek. Aste batean esan ziguten maskarak ez zirela beharrezkoak, eta hurrengo astean baietz, ezinbestekoak zirela... Normala da, erloju kontra ari baitziren epidemiaren hedapena moteltzeko ahaleginean. Zientzian, eskura dauden datuak kontuan hartuta egiten dira aurreikuspenak, eskuratutako ideietan oinarrituta lan egiten da; ondorioz, bilatu, alderatu eta, batzuetan, huts egiten da. Hutsegite bakoitzak beste bide batzuk zabaltzen ditu planteatzen diren arazoak azaltzen eta ebazten saiatzeko. Horrela funtzionatzen du ikerketak. Ez dago ezer leporatzerik egin diren balizko hanka-sartze horiengatik.

Baina, epidemiologian edo birologian aditu diren zenbat emakume ikusi ditugu hilabeteotan komunikabideetan, zer gertatzen ari zen eta nola leun zitekeen azaltzen? Gutxi, oso gutxi. **Margarita del Val** izan da gutxi horietako bat, birologo prestigiotsu bat, zeinak oso argi azaldu baitu, itzulgingururik gabe, zer nolako jokabidea duen birusak eta zein den haren aurrerapena gelditzeko bidea. Baina, komunikabideetan zergatik ez zaie emakume gehiagori kontsultatzen? Neurri batean, bide errazena hautatzen dutelako, hau da, ohiko kontaktuetara jotzen dutelako normalean, erraz erantzuten duten horietara. Zientzia gaietan adituak diren emakume gutxiagori deitzen zaie eta, egia da, emakumeek maizago uko egiten diote elkarrizketak emateari; beharbada nahikoa kontrastatu ez diren datuen aurrean zuhur jokatzeko dutelako, beharbada agerpen publikoaren edo adiskideen erreakzioen beldur direlako, edota, beharbada, protagonismo gogo txikiagoa dutelako. Foro batzuetan, mezu nahasi edo alarmistak zabaltzen dira zientzialari edo dibulgatzaile batzuen egoen ondorioz. Benetan uste dut, emakume aditu gehiago interpelatu balira, komunikazioa argiagoa izango zatekeela. Zientzia arloa apur batez alde batera utzita, gogora dezagun pandemia garaian nola transmititu izan dituzten mezuak Sanna Marinnek (Finlandiako lehen ministroa), Jacinda Ardernek (Zeelanda Berriko lehen ministroa) edo Angela Merkelek (Alemaniako kantzilerra): horien guztien komunikatuetan hurbiltasuna gailentzen zen, irmotasuna eta enpatia, gizonezko kideen ohiko mezuetan hizkera «belikoa» nagusitzen zen bitartean.

Emakume askok zaindu dituzte pertsona gaixoak, eta emakume askok lagundu dute pandemia kontrolatzeko balioko duten txertoak deskubritzen. Hainbeste emakume

ikusezinen artean, hiru emakume aipatu nahiko nituzke, zeintzuek ondo baino hobeto sinbolizatzen baitituzte zaintza lanak (maskaren bitartez), oinarrizko ikerketa (koronabirusaren lehen irudia ahotan) eta esfortzu kolektiboaren arrakasta (txerto eraginkorren deskubrimenduaren bitartez).

Sara Little Turnbull-ek (1917-2015) FFP2 maskaren aurreko eredua asmatu zuen, norbera babesteko erabiltzen diren maskara autoiragazlea. Industria arloko diseinatzaile honek zioen berak ez zuela ezer asmatu, aurretik ere bazegoen produktu bat hobetu besterik ez zuela egin. Bularretako baten kopa hartu zuen oinarri, sorbaldakoak eta bestelako jantzien zatiak ere probatu zituen, eta osasun arloko langileentzako maskara arin eta malguagoak lortu zituen.

1967. urtean **June Almeida** (1930-2007) izan zen, mikroskopia elektroniko baten bidez, koronabirus bat nolakoa zen ikusi zuen lehendabiziko pertsona. Junek ez zuen unibertsitate titulurik, baina ikastun aritu zen Erresuma Batuko hainbat laborategitan, eta bertan ikasi zuen mikroskopia elektronikoak erabiltzen, zeintzuek hainbat birusen egitura agerian utziko baitzuten gerora. David Tyrrell birologoaren ekipoa hasi zenean, ikerketa-talde hark hotzeria arrunta ikertzen ziharduen. Aztertzen ari ziren birusetako bat («B814») gripearen oso antzekoa zen, baina ez zuten laborategian kultibatzerik lortzen. Hor sartu ziren jokoan Almeidaren ezagutza eta trebetasuna: jasotako laginak aztertu zituen metodo propio baten bidez (oraindik ere ikerlari ugari erabiltzen dutena) eta mikroskopia elektronikoari esker eskuratu zuen koronabirus baten lehendabiziko irudia.

Ezagutzen ditugun txerto gehienetan, agente infekziosoa bera sartzen da (edo haren proteinaren bat), ahulduta edo desaktibatuta, gure sistema immunitarioak antigorputzak sor ditzan etorkizunean izan litezkeen infekzioen kontra babesteko. COVID-19 eragiten duen koronabirusaren kasuan, erabilitako txertoetan ez da birusik ez birusaren proteinarik txertatzen, ARN molekula baizik, zeinak jarraibideak ematen baititu zelulek beraiek sor dezaten gure defentsak aktibatzeko beharrezkoa den proteina. Txerto horiek **Katalin Karikó** biokimikariaren ikerketetan (1955) oinarrituta daude; izan ere, Karikóren ikerketa-ibilbidearen muina izan da beti aztertzea ARN molekulek nola bidal diezazkieketen jarraibideak zelulei, beren kabuz sendatzeko (eta ez immunizatzeke). 1990. urtean, ideia horiek berritzailegiak zirelakoan, haren proposamenei uko egin zitzairen sistematikoki. Dena aldatu zen Drew Weissman immunologoak berarekin lan egiteko eskatu zionean; HIESaren kontrako txertoa deskubritu nahi zuen, Karikók asmatutako ARN mezulariaren teknika erabiliz. 2010. urtean, gaixotasun infekziosoen tratamendua ikertzen

ziharduen enpresa batek erosi zituen Karikók eta Weissmanek erregistratutako patente batzuen gaineko eskubideak. BioNTech enpresak ere eskuratu zituen beste batzuk, kasu horretan, minbiziaren kontrako txertoak garatzeko. Enpresa biak ezagunak dira gaur egun, COVID-19aren kontrako txertoak garatzen baitihardute, eta biek erabili dute Karikók, gaitzespenak gaitzespen, garatutako ARN teknologia.

Amaitu baino lehen, neure esker ona eta txalo bero bat helarazi nahi dizkiet lanean gogor diharduten emakume zientzialari ikusezin guztiei eta, oztopoak oztopo, beren ideiei gogor eusten dieten guztiei. Garai batean horien guztien ekarpenik izan ez balitz, zientziak ez zukeen egin diren lorpen asko erdiesterik izango. Eta, batez ere, aitortza beroa egin nahi diet zaintzen gaituzten emakume ikusezin guztiei. Eskerrik asko!

Arrakala digitala: arrakala sozialaren isla

Arrakala digitala: arrakala sozialaren isla

Saioa Osés Monzón.

Politika eta Administrazio zientzietan lizentziaduna eta Hizkuntza Modernoetan graduatua, gaur egun, irakaskuntza ertaineko irakasle lanetan ari da.

2020ko martxoaren 12an Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez ikastetxeen itxiera ezarri zuenerako, gure institutuan ikasle askok eskolara joateari utzia zion dagoeneko. Erabaki haren aurretiko egunetan familiak beldurtuta zeuden, eta ikastetxea ixteko eskatzen hasiak ziren, zurrumuru bat baitzebilan auzoan: birusa institutuaren erruz hedatu omen zela. Familiak argudiatu zuten beren seme-alabek arnasketa-arazo larriak zituztela eta birusak mehatxu egiten ziela beren osasunari; horregatik erabaki zuten seme-alabak klasera ez bidaltzea.

Beldurra, segurtasun eza eta panikoa ziren nagusi egun haietan, eta horrekin batera nabarmena zen zuzendaritza taldearen eta irakasle-klaustroaren nahasmena. Lanerako materiala prestatu behar zuten, auskalo zenbat egunetarako, eta, gainera, baliabide informatiko eta telematiko zein material bibliografiko eskasak zituzten horretarako. Izan ere, esan bezala, ikasleek eskolara joateari utzi zioten, eta eskolako materiala gelan bertan zeukaten (bigarren hiru hilekoa amaitua zenez, eta materia berriarekin hasi gabeak zirenez, ez zegoen ezer ikasteko, ezta etxeko lanik ere).

Hala, ikasle bakoitzak egiten dituen 11 irakasgaietako materiala kopia zezan eskatu zitzaion institutuko atezainari, 15 egunetarako behar beste material. Eta, muntatzekate bat balitz bezala, irakasleak kartoizko karpeta banatan sailkatuz joan ziren ikasle bakoitzari esleitutako lanak, karpeta bakoitzean zegozkion izen-abizenak adierazita. Familiak hurrengo egunean hurbil zitezten erabaki zen hasieran; jasoko zuten

karpetan, seme-alabek hamabost egunetarako lan-materiala izango zuten horrela, ikasturte hasieran hainbeste kostatzen zaien eskolako errutina ez galtzeko.

Baina materiala jasotzeko eguna ez zen inoiz iritsi, ikastetxeak erabat itxi zirelako. Orduan, erronka berri bat sortu zen ikasle horien hezkuntzarako eskubidea bermatzeko. Kontuan hartuta «normaltasun» egoeran ere koiuntura familiar, sozial eta ekonomikek nahikoa kaltetzen dutela hezkuntzarako eskubidea, imajinatu zer nolako zailtasunak izango zituen hezkuntzak pandemia ezezagun eta «apokaliptiko» batean. Zuzendaritza taldeak, arduratsu, erabaki zuen material horrek nola edo hala iritsi behar zuela ikasleengana, eta, horretarako, mezularitza zerbitzu pribatu bat kontratatu zuen, zentroak berak dituen baliabide ekonomikoak baliatuta. Pentsa baliabideok ez direla oso oparoak; baliabide sozio-ekonomiko gutxiko institutu publiko xumea baita gurea. Adierazi beharra dago, gainera, estres handiko garai hartan zuzendaritza taldeak inolako babes-sarerik gabe jardun zuela, hau da, goragoko hezkuntza/administrazio arloko ezin instantziak ez ziola inolako laguntzarik eman hain ezaugarri bereziak zituen ikastetxe bati. Ezin ahaztu dezaket, bestalde, –eta aurrerago ere errepikatuko dut– itxialdiak iraun bitartean ikastetxeko ikasleek ez zutela inolako baliabide informatikorik jaso, ezta Wi-Fi konexiorik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saisetik (apenas iritsi ziren lau Wi-Fi txartel, ezerezera konektatzeko). Institutuko zuzendaritzaren, gizarte erakundeen eta elkarteen arteko lankidetzari esker sustatu zen babes-sarearen bitartez jaso zuten familiek laguntza bakarra, eragile horiek baitira, aspalditik, egunez egun ikastetxean esku hartzen dutenak.

Itxialdiak uste baino luzeago jo zuen; eta atzean geratu ziren Gobernuak tantaka iragarritako hamabost egunak. Hori horrela, ezinbestekoa zen epe luzerako plan bat ezartzea, hezkuntzarako eskubide unibertuala bermatu ahal izateko; esaldi huts, usatu eta hotsandikoa izatetik harago. Beraz, irakasgai bakoitza hamabost egunez lantzeko beharrezkoa zen material guztia plataforma digital batera igo zuten irakasleek (ez dago plataformaren izena eman beharrik, publizitaterik egin beharrik; zeren nahikoa presente baitago nonahi hezkuntza arloan). Gogoratu irakasleek ere egiteko ugari zituztela; material guztiak digitalizatu behar zituzten, ondoren fotokopiatu eta mezularitza bidez ikasle guztiei bidali ahal izateko, hamabost egunik behin.

Zuzendaritza taldeak eta sailetako buruek adostu zuten ikasleek egunero aurkeztu beharko zutela lana, errutina eta ordena bat mantendu ahal izateko eta, horrela, ikasleekiko erabateko deskonexioa saihesteko. Eta hortxe dago koska (danbor-arradak): ikasle bakoitzak, egunero, irakasgai bakoitzeko irakasleari bidali behar

zion e-mailez, ikastetxeko bere posta elektronikotik, egindako etxerako lanaren argazkia. Ikasle askok, goi-mailetakoek eta Interneterako sarbidea zutenek, arazorik gabe aurre egin zioten prekariedade digitalaren erronka berri hari. Baina ikasle batzuek ez zekiten beren posta elektronikoaren pasahitza, eta, akaso, ezta helbidea bera ere; beste hainbatek, posta-helbide pertsonaletik bidaltzen zituzten lanak; eta gainerakoek ez zuten bidali ere egiten, etxean sakelako bat baino ez zutelako, datu mugatuekin. Zenbait tutorek kontatu dute arratsalde oso bat eman zutela telefonoz e-mail bat nola bidali azaltzeko. Beraz, irakurle maiteok, hona hemen arrakala digitala, arrakala sozio-ekonomikoaren ondorio zuzena.

Desiotako emaitzak lortu ez genituenez, zuzendaritza taldeak erabaki zuen, intimitatea babesteko irizpide onez, ikastetxeko tutore bakoitzari sakelako txartela bana ematea, ikasleekin eta beren familiekin eguneroko harremanari euste aldera. Jarraipen akademikoa egitea ez ezik, ikasleen aldartea eta egoera emozionala zein zen jakitea zen helburua.

Online eskolarik egon ez zen arren (arrazoiak argiak dira), institutuko tutore eta irakasleak ez ziren izarrei begira egon, jende askoren aurreiritzi eta desinformazioak iradokitzen zuenaren kontra. Goizeroko errutina nahasia honako hau zen: alde batetik, WhatsApp mezu edo e-mail bat bidaltzen zitzaien familiei edo ikasleei beraiei (aurretiaz gurasoen baimena jasota), zentzuzko ordu batean altxa zitezten eta egunari zein eskola-egitekoei aurre egiteko aldartea izan zezaten. Goizero bidaltzen zizkieten ikasleei honelako WhatsApp mezuek: «Egun on! Zelan egin duzu lo gaur? Animo, bada altxatzeko ordua. Historiako irakasleari zerbait aurkeztu behar diozu; hainbat egunetan ezer egin ez duzula esan dit eta». «Gaueko bederatziak dira eta historiako irakasleak oraindik ez du ezer jaso, irakasgaia gainditzea jokoan dago».

Goizetako ohiko beste errutina gisa (tutoreek logistika, *Big Data* edo bestelako edozein arlo informatikotako masterretan «Cum Laude» jasotzeko modukoa), irakasleek sailkatu egiten zituzten gauean zehar jasotako WhatsApp mezu kontaezinak (ikasle bakoitzaren 11 irakasgaietako etxerako lanak) eta zegokion irakasleari birbidaltzen zizkieten, azken horrek ariketa zuzendu eta berriro ere zuzenduta bidal ziezaion. Badirudi pandemia garaian gure ikasleek artista existentzialisten ohiturak hartu zituztela, eta inspirazioa goizaldean iristen zitzaizela (tartean Gauloiserik gabe, suposatzen dut).

Txantxa zaharkituak aparte utzita, benetan, egoera honen atzean dagoena zera da: ikasleak, neskak gehienbat, etxeko lanez eta neba-arreba txikien zaintzaz arduratzen

ziren gurasoak etxetik kanpo (oinarrizko jarduera deritzonetan lanetan) ari ziren bitartean, eta, ondorioz, eskolako etxerako lanak gauez egiten zituzten.

Aurretik azaldutako guztiak, nire iritziz, agerian uzten du eskola publikoak balio hezigarria eduki ez ezik, laguntza-zerbitzu gisa ere balio duela. Horregatik, artikulua honen bitartez, eskatu nahi dut hezkuntza hibrido deritzon termino berria berehala ezaba dadila hezkuntza arloko edozein programa, plan edo zirriborrotatik. Eskolak aurrez aurreko instituzioa izan behar du, eta, beste ezeren gainetik, ikasleen egoera emozionalaz kezkatu behar du, ikasleen interes eta beharrianak (ohitura osasungarriak, besteak beste) zaindu behar ditu, eta neska-mutilak eroso eta seguru sentitzeko espazioa izan behar du, tamalez, etxeak batzuetan ez baitira horrelakoak izaten.

Azkenaldian, sarri ikusi ditut nire inguruan familiak lasai, beren seme-alaben ikastetxeak (pribatuak) teknologikoki prest daudela esanez, itxialdirik egonez gero, eskolak gai izango direlako klaseak *online* emateko. Horrek amorratu egiten nau. Baliteke eskola publikoa ez egotea, ageriko arrazoiengatik, teknologia arloan horretarako prest; baina prest dago, hezkuntza osatzen duten arlo guztietako profesionalei esker, eremu emozionalean esku hartzeko. Izan ere, egunez egun eta aurrez aurre kezkatzen dira eta egiaztatzen dute ikasleek bazkaldu ote duten, hortzak garbitu ote dituzten, nahikoa ordu lo egin ote duten, edota etxean gatazka edo arazo larriren bat izan ote duten. Laburbilduz, eskola publikoa da ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea eta aukera berdintasuna bermatzen dituen bakarra, horien jatorria, klasea edo/eta aniztasun funtzionala edozein direlarik ere.

Zaintza
dagokion
lekuan jartzea

Zaintza dagokion lekuan jartzea

Isabel Otxoa Crespo.

Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila sailaren irakasle, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean. UPV/EHU.

Jarraian datorrena ez da zaintzari buruzko teorizazioa, ezta gai hori jorratu duten egile feministei buruzkoa ere. Haiiek esan nahi izan zutenaren egiazko interpretazioa ere ez da izango. Bizipenak partekatzeari buruzko idazkia da hau. Gaiari lotuta izan ditudan bizipen propioetan oinarrituta idazten dut eta, ondorioz, iritzi mugatu, subjektibo eta partziala eskainiko dut erabat. Horra, bada.

Zalantza daukat benetan eraldatzailea ote den lelo hau, gero eta presentzia handiagoa eta esanahi gehiago bereganatu dituena: zaintza erdigunean.

Zaintzak (bere horretan), zehar-elementu gisa, gauza gehiegi barne hartzen ditu beregain. Barne hartzen ditu bai lanera joan aurretik hartzen dugun dutxa, bai ama gorrari egin beharreko telefono dei nekagarria, bai laguntza behar duen ikasleari eman beharreko arreta berezia, bai erakunde baten funtzionamenduari dagozkion demokrazia eta enpatia, bai kale bat oinezkoentzat egitea, bai klima-aldaketaren kontrako konpromisoa. Baina zaintzak ez dira inguru patriarkal, kapitalista eta arrazistatik libratzen, eta, hala, testuinguru horretan kokatzen da zaintzen egiazko jardun-eremua: horrela ulertzen dira eta horrela egiten. Hortaz, gutxiespenean eta, aldi berean, zaintza deritzogun horren gaindimentsioan oinarrituta eraiki den dorrea desmuntatzeko, ezinbestekoa da gaia ikuspegi ezberdinetatik jorratzea eta helburuak hierarkizatzea. Zaintzarik gabe, ez dago bizitzarik; baina zaintza hutsak baino askoz gehiago da bizitza, eta horrela izan dadin nahi dugu.

«Nire garaietan» (zahar-kontuak) euskal feministok bagenuen etxeko lanari aurre egiteko erantzuna: zerbitzu kolektiboen bitartez sozializatu beharra zegoen, hala nola haurtzaindegien, garbitegien eta jantokien bitartez.

Etxeko lana enbarazua besterik ez zen, dedikazio aldetik gutxien kostatzen zen moduan ebatzi beharreko zerbait; alderdi guztietan bermatu behar zen bizitza, horretan izan ezik. Neurri batean, garbiketa-estandarren, elikadura motaren eta abarren gaineko erabaki pertsonalen arabera zen lanen bolumena. Eta horiek adierazpenik txikienera murriztu ondoren, gizonekin banatu beharra zegoela ondorioztatu genuen. Banatu, eta ez partekatu; izan ere, esperientziak agerian uzten zuen gizonak artistak zirela ihesi ibiltze horretan, eta, ondorioz, argi utzi beharra zegoen zein zen beren zatia, zeintzuk ziren eska ziezazkiekeen egitekoak eta zein horien egikaritze-maila.

Zaintzak ez ziren panoramaren parte. Bileren zati handi bat alferrik galtzen genuen beharrezko etxeko lanen eta ostalaritza-establezimenduen izarren arteko baliokidetasuna ezartzeko saiakeretan; zaila baino zailagoa zen, zeren, merkataritza kapitalistaren irizpidea tartean sartzen denean, ez baita erraza izaten beharrezkoak diren eta ez diren ondasunen artean bereiztea. Edozein kasutan, etorkizunean jendarte ez-patriarkala irudikatuta, konturatzen ginen beren independentziara bidean zeuden pertsona kutunak zirela zaintzen hartzaileak. Ez dut gogoan adineko pertsonen arretaren inguruko errezetarik genuenik. Garai hartan adineko pertsonak ez ziren arlo pertsonaleko kezka: hogeitau urte inguruko feministak ginen, berrogeita hamar urte inguruko gurasoen alabak.

Urteen poderioz, hurbileko pertsonak (gu geu barne) gaixotzen, ezbeharrak izaten hasi ziren. Gure amak alargundu egin ziren, eta liburuetan zaintza-lanak ikusi ez zituztenek, bizitza errealean deskubritu zituzten zaintzak, beren konplexutasun osoan. Ordurako, kontziliazio hitza gure hiztegian txertatuta zegoen dagoeneko. Eta kritika egin genion kontziliazioari, uste baikenuen, laneko eskubide gisa planteatzen zenez, emakumeak «zegokien lekuan» mantentzeko tresna teknikoa zela, sistemaren asmakizun bat: arlo pribatuan zaintza-beharrak asetzeko bide bat, enplegu arloan presentzia subsidiarioa sustatzen zen bitartean.

Legeek aipatzen zuten kontziliatzeko eskubidea egikaritzeko, enpresek mahai gainera atera zuten nik neuk ere, zaintza erantzukizun sozial gisa ulertuta, partekatzen dudana gai bat. Ez naiz pertsonak etekinik handiena eskuratzeko

erabiltzearen aldekoa, ez; zaintzeko behar eta desioak aitortzen dituen ereduari buruz ari naiz. Zalantzan jartzen ziren emakumeek (adinekoak zaintzeko) lanaldia aldatzeko egiten zituzten eskaerak, noiz eta familian horretaz arduratu eta zaintza parteka zezakeen aita bat zegoenean. Bestelako mundu batean, kolektibitate antolatua arduratuko litzateke erabaki horiez. Enpresatik zetorrelako soilik uko egin genion horri, ala bada gehiagorik?

Ordutegi-aldaketek ez diote negozioari soilik eragiten; gainerako langileen ordutegiei eta egitekoei ere eragin diezaiekete. Badakit zertaz ari naizen: eskolak beti goizeko lehen orduan, irakaskuntza ostiraletan azken ordura arte... Lanaldi murrizketa laburren ondorioz, oso ordu gutxiko ordezte-kontratuak sortzen dira ezinbestean lantokian egin behar diren jardueretan, adibidez, zaintzen sektorean. Zaintza-sistema eta, ondorioz, lan ordainduari dagokion mundua berrantolatzea erantzukizun soziala eta kontu politikoa denez, ez litzateke zertan etxe bakoitzeko ateetatik barrura mugatu. Badirudi «bikote kontuetan ez sartzea» zioen printzipio hark, sozialki tratatu txarretan esku hartu behar ez izateko balio zuenak, indarrean jarraitzen duela oraindik ere.

2006ko Menpekotasun Legeak barne hartzen zituen diruzko prestazio batzuk ez zetozen bat defendatzen genuen zerbitzuen ereduarekin, baina aitortzen zuen, bai, teorian egoera guztietan arreta emateko aukera bermatzen zuten zerbitzuen zerrenda: eguneko zentroak, gauekoak, etxez etxeko laguntza, egoitzak, arreta pertsonala. Bete gabeko promesa izan zen azkenean, zerbitzuak ez baitziren nahikoak izan, inondik inora. Senide nagusien eskutik iritsi zen errealitatea, ia beti amen aldetik, esaten baitzuten nahiago zutela hil egoitza batean bizi baino. Eta, haien larrian jarrita, ulertu egin genuen. Kuartel-egoitzak, ezezagunekin partekatutako gelak, bisita-ordutegi zurruna. Erabat sinetsita nago gai honek askoz gehiagorako emango lukeela, baina urte hauetan zehar zaintzaileengan zentratu dugu geure arreta, eta ezer gutxi erreparatu diegu artatutako pertsonen bizipenei. Zentzu horretan, adineko pertsonen buruz hitzegiteko adierazpen ohikoena «gure nagusiak» izateak ia guztia uzten du agerian.

Nahikoa babes badago, denbora luzez bizi daitezke, leun, zahartzaroaren hauskortasuna eta autonomiaren galera, bizi-inguru osoa aldatu beharrik izan gabe. Horixe egiten dute etxeko langileek, beren zerbitzuak ordaintzeko gai direnen etxeetan: bizimoduaren indibidualizazioa, dispertsioa eta mugikortasun geografikoa balio positibo gisa hartzea, bizitza kosta ahala kosta luzatzea eta zerbitzu gabezia normalizatzea biltzen dituen konbinazio hilgarriaren ondorioak leuntzen dituzte.

Zerbitzuak eskatzeko orduan, gainera, zehaztu egin behar dugu horien diseinua, esloganek ez dutelako balio.

Pozarren bizi daiteke beste pertsona batzuei arreta emanaz; eta bereizi egin daitezke aukerak eta inposizioa. Bereizi egin daitezke, baita, instituzioen esku egon beharko lirakekeen alderdiak eta elkar ezagutzen duten pertsonen arteko estimu ordezkazina. Horregatik, sakon aztertu behar dugu, argitasun eta ausardiaz, zer rol ematen diegun zaintza komunitarioei.

Erdigunea gainezka dago eta, zaintzaren gaia aldarrikapen eraldatzailea izatea nahi badugu, lekua egin beharko diogu, hutsune hori justiziaz, berdintasunaz, demokraziaz, elkartasunaz, banaketaz eta beste hainbat gauzez bete ahal izateko. Balio gisa aitortu beharko dira, baita, enfrontamendurako eta presioa egiteko gaitasuna, gutaz espero den horri men ez egiteko erabakia (baita ekintza ona izanda ere); izan ere, bide horretatik lortu dugu emakumeok esleitu zaigun lekutik ateratzea.

Zoragarria da zaintza dagokion lekuan jartzeko proposamen eta soluzioak planteatzea, eta horietan aurrera egitea. Zorionekoa da bere burua edo beste pertsona bat denbora luzez zaindu behar izan ez duena. Baina urte batzuren ostean ugari izango gara –ordurako hilik ez bagaude behintzat, ni neu ere tartean– «zuen nagusiak» izatera pasatuko garen feministak. Eta ordurako gai hau behar bezala (neurri batean bada ere) ebatzita ez badago, geure asmoan porrot egin dugulako izango da. Zaila da benetan, baina, ez al dugu esan, ba, gai honek erabateko lehentasuna duela?

Lau urteko 30
neska-mutil
ditugu, eta
jantokian bi
begirale gara; ez
da ezer gertatzen
zortea dugulako

Lau urteko 30 neska-mutil ditugu, eta jantokian bi begirale gara; ez da ezer gertatzen zortea dugulako

Begoña Sánchez Surribas.

Bigarren mailako ikasketak. Eskola-jantokietako langilea.

Begoña Sánchez Surribas, 54 urte, alaba baten ama, bigarren mailako ikasketak ditu. Eskola-jantokietan lanean dihardu 2006. urtetik, egungo ikastetxean 2007tik. Azaldu duenez, bere lanaren alderdirik positiboena da lana eta familia uztartzeko aukera ematen diola. Hori da bere lanpostuari eusteko duen arrazoi nagusia.

Begoñak uste du ikastetxeek ez dutela giza baliabide eta baliabide material nahikorik beren lana baldintza egokietan egiteko. Maite du bere lana, baina, esan duenez, lan-baldintzak gordinduz joan dira azken hamarkadan eta, pandemia piztu zenetik, larriagotu baino ez dira egin:

«COVID-aren izenean denak balio du; eta aurretik eskoletako jantokietan genituen arazoak (langile falta) estaltzeko aprobetxatzen ari dira».

Bere iritziz, eskoletako jantokien sektorea funtsezkotzat jotzea oso erabaki hipokrita da, praktikan, ez dutelako uste garrantzitsua denik:

«Geure burua ikusgai egin behar izan dugu mobilizazioen bitartez; izan ere, jendarteak inoiz ez gaitu funtsezkotzat jo, ezta organismoek ere (ez publikoek, ez pribatuek)».

Zorionez, duela gutxi egin zituzten mobilizazioekin bat egin zuten irakaskuntzako langileek, eta, horrela, agerian geratu da beren lanaren garrantzia: «Geu ere bagara hezkuntza-komunitateko kide eta, ondorioz, funtsezkoak gara, eskolak ematen dituen

irakasle bat bezainbeste». «Kalera irten gara funtsezkoak garela aldarrikatzeko, bestela, ez genukeelako aitortza hori lortuko». «Orain arte, gutxi hitz egin da (edo ezer ez) jantokiez eta jantokietako langileez, ez gaude agendaren barruan».

Pandemiak, beste lan-sektore feminizatu batzuetan bezala, larriagotu egin ditu desberdintasunak, batez ere, ikastetxe pribatu-kontzertatueta. «Desberdintasun argia dago kontzertatu-pribatuaren eta publikoaren artean; publikoak –gabeziak izan arren– baldintza hobeak ditu, pribatu-kontzertatuak baino gehiago borrokatu dutelako. Azken batean, kontzertatuan dena da zenbakiak ondo koadratzea».

Langile honek kostuak izugarri murriztu direla azpimarratu du nabarmen txikitu da janariaren kalitatea, ikastetxeak «ogerlekoak lau pezetatan» nahi dituelako eta, ondorioz, gastronomia-enpresek produktu eta zerbitzuak merkatu egiten dituztelako, bezeroa lortzearren. Ikastetxe publikoetan, ordea, egoera hori ez da hain intentsitate handiz ematen, urteetan zehar grebak eta mobilizazioak egin dituztelako eta, hortaz, gutxieneko batzuk betetzen dituztelako, adibidez, ratioak (Eusko Jaurlaritzaren menpe baitaude).

«Ikastetxe pribatu-kontzertatueta ratioak zabal eta libreak dira; akabo».

Pandemiaren hasieran, NBEak eskasak izan ziren eta berandu iritsi ziren ikastetxe batzuetara; aste batzuk geroago, maskara kirurgikoekin lanean hasi ziren, baina ez zuten balio, umeez maskararik gabe jaten baitute eta, ondorioz, langileak ez baitaude babestuta. Ondoren, FFP2 maskarak banatzen hasi ziren, eta, gaur-gaurkoz, borrokan jarraitzen dute maskarak behar besteko maiztasunaz jasotzeko.

Pandemia gorabehera, jantokian ez da begirale gehiago jarri, «denbora laburragoa da eta, teorian, txanda bat gehiago dago» nahiz eta pertsona gutxiago egon bazkaltzeko. Hortaz, lan egiteko modua aldatu egin da, eta lan-karga handiagoa da. Praktikan, COVID-19 protokoloak ezin dira aplikatu, jantokiko denborak berdina izaten jarraitzen duelako (bi ordu) eta ahal izan den moduan egokitu behar izan dugulako; ez dira espazio berriak eskuratu, horrek kontratazio berriak egin behar izatea eragingo bailuke, beraz, «zegoenarekin egiten dugu aurrera».

Grebei dagokienez, babes falta nabari da; langile honen arabera, 2020/21 ikasturte honen hasieran egindako hiru greba-jardunaldiak etsigarriak izan ziren, erantzuna oso eskasa izan zelako. Familiek, beren aldetik, gutxiengo batek salbu, «arduragabe»

eta «oportunista» izatea leporatu zieten. Badirudi familiak ez direla gai ikusteko langileek lan-baldintza txarrak izateak ondorioak izango dituela beren seme-alabek jasotzen dituzten zerbitzuen kalitatean.

«Sektore kontzertatu-pribatua immobilista da eta ez da ezertarako mobilizatzen; hala, sektore publikoari atxikitzeari esker aurrera egin ahal izan dugu aldarrikapen eta lorpenetan». Azken finean, hezkuntza-komunitatearen aldetik axolagabetasuna antzematen dute, batez ere, grebak egiten dituztenean; kasuren batean, gainera, irakasle jakinen batek zerbitzua egin du greban zeuden langileen absentsia betetzeko.

Zalantzarik gabe, jantokiko langileen sektorea ikusgai bilakatzen ari da une honetan, pandemian zehar egiten ari diren grebei esker. Nahiz eta alderdi politikoek ez dituzten sektore profesionalizatutzat jotzen, sindikatuek bai:

«Gure aldarrikapena bere egin dute, eta sindikatuen aldetik jendea ordezkatzan da; baina, langileek babesa ematen ez badizute, ezin duzu askorik egin, eta jarraipena oso txikia da». Adierazi duenez, pasabideetan kexatzera ohituta gaude, «mundu guztia dago kontentagaitz, baina inork ez du ezer egiten», grebarik ez egiteko aitzakiak jartzen dituzte gehienek.

Jantokietako langileen baldintzak duintzeko, bere aburuz, lehendabiziko neurria prestakuntza profesionala ematea izango litzateke, aitortza profesionala emateko «ezeren profesionaltzat hartzen ez bazaituzte, ez dago ezer egiterik». Langile honek klasismoa antzematen du egoera honetan guztian, eta horrek hezkuntza-komunitatearen parte ez sentitzea eragiten du; «dena da engranaje bat, pieza batek huts egiten badu, nolabaiteko eragina izango du besteetan».

Funtzioak sexuaren arabera bereizteari dagokionez, azpimarratu du arduradun gehienak gizonak direla. Enpresetako gerentzietan bada emakumerik, baina begirale guztiak dira emakumeak.

«Soldata handiagoa jasotzeko laguntza gisa ikusten dute lan hau; lanaldi partzialak dira eta, horrela, kontziliatzea lortu dugu. Gainera, oporrak irakasleenak bezalakoak dira eta, ondorioz, astia daukagu zaintzan jarduteko».

Hala eta guztiz ere, eskola-autobusetako gidarien lanaldiak ere partzialak dira; horiek gizonak izaten dira gehienetan eta –gurea ez bezala– sektore profesionalizatutzat jotzen da. Jantokiko begiraleen sektorean, emakumeak gara gehienak; izan ere, gure soldatak «laguntza» bat dira eta, bistan denez:

«Gizonek aukera gehiago dute sustapenerako eta dedikazio handiagoz jardun dezakete lanean, etxeko egitekoen erantzukizuna eta hazkuntza emakumeen esku geratzen delako eta denbora kentzen digulako gure ibilbide profesionalak garatzeko».

Lan-osasunaren arloan, honako hauek dira gaixotasun ohikoenak: bizkarreko minak, ahotsaren erabilerarekin lotutako gaixotasunak, ozen hitz egin behar izaten dutelako beti, eta entzumen falta, inguruko zarata oso handia izaten delako. Azpimarratu duenez, lan-karga oso handia da eta horrek tentsio handia eragiten du, «azkenean, depresioak eta antsietateak jota bukatzen dugu, ikusten dugulako ez garela denetara iristen, eta horrek antsietatea eta ondoeza eragiten ditu lanean, lan-baldintza kaskarrek lanera joateko gogoia ere kentzen digutelako».

Azpimarratu du jantokietan lan egiteko behar-beharrezkoa dela prestakuntza espezifikoa; haurren eboluzioaren etaparen, gatazken ebazpenaren eta lehen sorospenen gaineko prestakuntza behar da. Ikastetxe kontzertatuetan prestakuntza hori tantaka eta lan-ordutegitik kanpo ematen da, hautazko formatuan, gainera; eta ikastetxe publikoetan, ordea, aukera gehiago izaten dituzte trebatzeko.

«Edozein lanpostutarako behar da prestakuntza, adibidez, alergikoen ingurukoa. Gainera, adrenalina injekzioak jartzen dizkiegu haurrei, nahiz eta langile ez kualifikatuak izan; ez gara erizainak, baina horrela jarduteko eskatzen digute». Azaldu duenez, «gero eta lan gehiago daukagu denbora berean egiteko, eta alergikoen kontua, adibidez, larria da; gainera, korrika eta presaka egiten da guztia». «Ardurak eskatzen dizkigute eta ez dira horretarako baldintzak ematen; korrika ibiliz ezin da bermatu segurtasuna, are zailago dauzkagun ratioekin: lau urteko 30 neska-mutil eta bi begirale; ez dira gauza gehiago gertatzen zortea dugulako. Begiraleek ezin dute horrelako erantzukizuna beren gain hartu».

Azkenik, amaitu du esanez pribatua den oro kontrolik gabe kudeatzen dela; publikoa denaren kudeaketa beti da argiagoa eta kontrolatuagoa. Soluzioa lortzeko,

funtsezkoa da jantokiak eskoletako parte izatea eta jantokietan elikagai osasungarri eta ekologikoak ematea; haurren garapenean oso garrantzitsua da elikatzen ikastea, eta horretarako agertokirik onena eskolako jantokia da. Horrekin lotuta, Begoñak azaldu duenez,

«Une honetan gastronomia-enpresen bezeroak dira eskolak. Izan ere, ikastetxeek, eskura duten diru-partida azertu eta zera galdetzen diote enpresari: zer zerbitzu eman diezadakezu diru kopuru honekin? Hala da, gero eta diru gutxiago eskaintzen dute. Kostuak merkatu nahi dira eta horrek eragina dauka zerbitzuaren kalitatean; kalitatezko txahal-okela erosi beharrean, merkeena erosten da».

«Izango da ikastetxe pribilegiaturik produktu ekologikoak erabiltzen dituenik, baina, oro har, ohiko produktuak erabiltzen dira janaria prestatzeko. Eta kontuan hartu behar da ikastetxe eta egoitzen artean milaka jankide biltzen direla. Beren sukalde propioa duten ikastetxeek kalitate handiagoko menua bermatzen dute, eta ez dira plastikozko ontziak erabiltzen. Hori da aukerarik egokiena, zalantzarik gabe».

Eskolako jantokia itxi egiten bada, hondamendia izango litzateke, eta uste du familiak kalera irtengo lirатеkeela aizkora eskutan, familia eta lana uztartzeko funtsezko tresna delako.

Adinekoen
egoitzak:
COVID-19ak
bultzaturiko
hausnarketa

Adinekoen egoitzak: COVID-19ak bultzaturiko hausnarketa

Arantza Urkaregi Etxepare.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerketa Operatiboa Saileko irakasle agregatua izan da. UPV/EHU. Gaur egun, jubilatuta dago.

COVID-19ak gure zerbitzu publikoen ahuldadea agerian utzi duela askotan entzun eta esan dugu, bai osasungintzan bai gizarte-zerbitzuen kasuan, eta bereziki, adineko egoitzen egoera larria azaleratu du pandemiak.

Feminismotik zaintzak erdigunean kokatzeko aldarrikapena ez da berria, baina, nire ustez, pandemia honek balio izan digu zaintzen garrantzia jendartean zabaltzeko, zaintza-sistema gai politikotzat hartua izateko.

COVID-19ak adinekoen egoitzak gogor kolpatu dituela ezin ukatu. Lehen olatuan, ekaina arte, Hego Euskal Herrian 1.042 hildako izan ziren adinekoen egoitzetan; bigarren olatuan, urtarrilaren 27 arte, 457 hildako. COVID-19aren ondorioz hildako guztien heren bat gutxienez egoitzetako adinekoak izan dira.

Datu horiek argi uzten dute COVID-19ren lehen olatutik bigarren olatura egoitzen ardura duten erakundeek ez dutela asko ikasi, edo hobeto esanda, hartutako neurriak (batzuk hartu baitira) ez dira eraginkorrak izan, hain zuzen, egiturazko arazo baten aurrean gaudelako, kolokan dagoena egoitzen eredu bera baita.

Artikulu hau, atzera begira baino, aurrera begirako hausnarketarako baliagarria izatea nahi dut. Bizkaiari kokatuko dut hausnarketa, hoberen ezagutzen dudako sistema delako, baina elementu nagusiek balio beharko digute era orokorrean aplikatu ahal izateko.

Nola nahi dugu zainduak izatea?

Hau izan da pandemia honek sortarazi didan lehenengo hausnarketa. Gaur egun etxean edo egoitza batean egotea dira bi alternatiba nagusiak.

Ahalik eta denbora gehien etxean egotea omen da pertsona gehienek asmoa. Horrela bada, ezin da izan orain bezala, zainzailea emakume bat izanda, edo senide bat, edo hartutako (askotan kontratu gabe) emakume migrante bat. Eta dena, 180 €-ren edo gehienez 520 €-ren truke (Familia Barruko Zainketarako Prestazio Ekonomikoa). Hori da Aldundiak bultzatzen duena (Bizkaian, menpekotasuna onartuta duten ia 57 mila pertsona daude eta % 37,4k prestazio hori jasotzen du), merkeena baita. Baina etxean era egokian zainduak izateko zainzaile profesionalak behar dira, emakume = zainzaile agindu hori apurto behar dugu. Eta horretarako, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzu sendo bat (udalen eskumena dena) behar da, laguntza teknikoak, etxean dagoen zainzailea prestakuntza izatea eta lan-baldintza duinak, noski. Eta guzti honek, inbertsio handia eskatzen du.

Egoitzetan, zein motatako zaintza dago? Pandemia honetan ikusi dugu egoitzak adinekoentzako kartzela bihurtu direla. Bisitarik gabe, irteerarik gabe, askotan logelatik atera gabe... Birusak ez kutsatzeko neurriak hartu behar ziren ezinbestean, baina hartu diren neurriak, nolabait esateko «errazetak» izan dira, isolamendua, baina kontuan hartu gabe adinekoak zaurgarriak direla ez bakarrik birusaren aurrean, baizik eta arreta emozionala ezinbestekoa dela. Gauzak egin diren moduan, adineko batzuk ez dira COVID-19ak jota hilko, baina bakardadeak jota hil daitezke. Isolamendu-neurririk aparte, ez ziren posible bestelako neurriak? Bai, baina horretarako langile gehiago behar dira. Adierazgarria izan da bisitak eta irteerekin Bizkaian gertatu dena. Lehen eta bigarren olatu tartean, Osakidetzak aukera ematen zuen irteerak egiteko, asteburu batekoak, edo familiarekin bazkaltzeko, baina Aldundiak ordubeteko paseo terapeutikoak besterik ez ditu baimendu. Horretarako arrazoi bakarra dago: egoitzak kudeatzen dituzten enpresek langile gehiago kontratatu behar zituzten irteerak eta bisitak era zabalago batean egiteko. Eta ez zuten nahi.

Enpresek baldintzatu dezakete horrelako erabakiak? Nire ustez ez, baina Bizkaiko egoitzetan beraiek agintzen dute, Aldundiak uko egiten baitio bere erantzukizuna hartzeari.

Bizkaiko egoitzetan, pribatizazioa nagusi

Bizkaian, 154 egoitza daude baimenduta, denetara 10.748 plaza. Lau motatako egoitzak ditugu Bizkaiko egoitzen foru-sarean: Aldundiak Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) bidez kudeatzen dituenak, udalen menpe daudenak, Azpiegiturak Foru Merkataritza Enpresaren menpe daudenak eta plaza kontzertatuak.

GUFÉkoak publikoak dira, bai titularitateari zein kudeaketari dagokienez, 340 plaza daude. Udal egoitza gehienak ere publikoak dira, 874 plaza. Baina Azpiegiturak-en menpekoak, 1.865 plazak, titularitate publikokoak dira, baina kudeaketa pribatuen esku daude. Eta plaza kontzertatuak, 7.037 plazak, egoitza pribatuetan daude. Denetara, 10.116 plaza. Horietaz gain, 632 plaza daude guztiz pribatuak (plaza kontzertaturik gabe).

Beraz, Aldundiak kudeaturiko plaza publikoak bakarrik 340 plaza dira (%3,16). Eta gehitzen baditugu udal egoitzetan dauden plazak, %12ra ailegatuko ginateteke gehienez.

Besteetan, Azpiegiturak eta plaza kontzertatuen kasuan, Aldundiak egoitzak kudeatzen dituzten enpresei ordaintzen die 93,3€ okupaturiko plaza bakoitzeko eta eguneko. Diru horrekin zer egiten den ez dago inolako kontrolrik, txosten ekonomikoa aurkeztu behar dute, baina besterik ez. Eta hemen dago arazo nagusi bat. Arazo bikoitza: alde batetik, egoitzen kudeaketa pribatua da, eta bestetik, Aldundiak ez du bere erantzukizuna hartzen, hau da, dirua ematen du baina gero ez dago inolako kontrolrik, edo oso txikia, diruaren erabilpenaz, eta bereziki, egoitzetan ematen den arretaz.

Eta arretaren kalitateaz ari garela, langileez hitz egin behar dugu. Ratioak 1998ko dekretu batek ezarritakoak dira oraindik. Hor ezartzen dira gutxieneakoak. Bizkaiko Aldundiak aukera zuen (eta du) ratio horiek handitzeko, Gipuzkoako Aldundiak, EAJren eskutik, egin zuen 2010ean, baina ez du hori egin nahi. Eusko Jaurlaritzak 2019ko uztailaren 31n dekretu berri bat atera zuen, baina ratio berriak aplikatzeko bi urteko epea zegoen. Eta jadanik Legebiltzarrak dekretua aldatzeko eskatu du guztiz eznahikoa zelako. Hain zuzen, ratioak ezin direlako zenbaki hutsak izan, ratioak kalkulatu behar dira arreta duina emateko behar den denbora abiapuntutzat hartuta, gutxienez, bi orduko arreta zuzena. Eta horren arabera kalkulatu langilemota ezberdinen beharrak.

Baita egoitzaren egituraz hausnartu beharko genuke. Zaintza komunitarioa landu nahi badugu ezin dira izan egun dauden makroegoitzak, inolako erlaziorik gabe inguruko komunitatearekin.

Etorkizunari begira

Egungo egoitza-sistemak porrot egin duela irailean izaten diren Politika orokorreko Plenoetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ahalduen Nagusiek beraiek onartu zuten. Ez esplizituki, baina bai hirurek hitz egiten zutela egoitza txikiagoak behar zirela, 25 pertsonako moduluez hitz egin zuten, Osakidetzarekin koordinazioaren beharraz... Noski, ez zuten publikazioaz hitz egin, ezta langile gehiago izatearen beharraz... Beraiek neurri gutxi batzuk hartu nahi dituzte, eredu bera kolokan jarri gabe. Baina uste dut pandemiak agerian utzi dituen egoitza-sistemaren hutsunez baliatu behar garela egoitza-ereduaren inguruko eztabaida sakona egiteko eta zabaltzeko. Eta harago joateko ere: zaintza-sistemaz, bere osotasunean, hausnartzeko.

Egoitza-sistema publikoa izatea aldarrikatzen dugu, eta ados nago, baina hori ez dugu lortuko egun batetik bestera, prozesu bat izan behar du. Eta bitartean, zer? Publikazioa helmuga da, baina ezin gara horretara mugatu.

Alde batetik, pribatizazioak eten egin behar ditugu, hau da, sortzen diren egoitza-plaza berriak publikoak izatea exijitu behar dugu. Are gehiago, Bizkaian, berehalako erronka dugu GUFeko den adinekoentzako Gallarta egoitza deuseztatu ez dezaten. Aldundiak egoitza hori aniztasun funtzionala dutenentzako egoitza bihurtu nahi du eta horrek ondorioztatuko luke adinekoentzako 64 plaza publiko gutxiago izatea Bizkaian, guztiz onartezina dena.

Bestetik, epe motz eta ertaineko neurriak exijitu behar ditugu, menpekotasuna duten adinekoen arretaren kalitatea bermatzeko. Aldundiak kontrol publikoa egin behar du, bai diru publikoaren erabilpenaz bai emandako arretaren kalitateaz.

Aldundiak behartu behar ditu egoitzak kudeatzen dituzten enpresak hainbat neurri hartzera: langile gehiago kontratatuz, modulu txikiagoak egitera, langileen formakuntza bermatzera, arreta integrala ematea... Premiazko neurriak hartu behar dira egoitzetan eta horretarako Aldundiak ikuskarpenak zorrotz eta biderkatu behar

ditu, esku-hartzeko aukera baztertu gabe. Foru Sarean dauden egoitza guztiak, berdin du Azpiegiturak-en menpekoak izan edo egoitza pribatuko plaza kontzertatuak izan, guztiak erantzukizun publikokoak dira, EAEko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak aginduta. Beraz, Aldundiak ezin du adinekoen arreta enpresen esku utzi, dagozkion ardurak hartu behar ditu eta enpresak behartu behar ditu adinekoei kalitatezko arreta eman diezaieten.

Ez da bidea erraza izango, baina COVID-19ren pandemiak eragindako mina eta kaltea, zaintza-sistema berri bat sortzeko aukera bihurtu behar dugu.

steilas

COVID 19. Pandemiaren
inguruko gogoeta feminista